

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2017ko AZAROAREN 27ko BILKURA

Herri Biltzarra herriko etxean bildu da, Eliane NOBLIA, bigarren auzapezordearen lehendakaritzapean, 2017ko azaroaren 27an, astelehenarekin, 19 orenetan.

Bertan ziren: Eliane Noblia and., Frédéric Bardin j., Pascale Lespade and., Didier Irastorza j., Eliane Aizpuru and., Henri Saint Jean j., Anne-Marie Pontacq and., auzapezordeak; Vincent Bru j., Vincent Goytino j., Christiane Hargain-Despéries and., Patrice Dor j., Yolande Huguenard and., Jean-Jacques Lassus j., Jean-Noël Magis j., Corinne Othatceguy and., Peio Etchelecu j., Roger Barbier j., Pascal Bourguet j., Véronique Larronde and., Argitxu Hiriart-Urruty and., Philippe Bacardatz j., Nathalie Aïçaguerre and., Amaia Beyrie and., herri kontseilariak.

Ezin bertaratuak: Bernadette Jougleux and., auzapeza; Christian Devèze j., auzapezordea; Argitxu Hirigoyen and., Maryannick Hirigoyen and., Carmen Gonzalez and., Camille Jenvrin j., herri kontseilariak.

Ahalordeak: Bernadette Jougleux andreak Eliane Noblia andreari, Christian Devèze jaunak Frédéric Bardin jaunari, Argitxu Hirigoyen andreak Christiane Hargain-Despéries andreari, Maryannick Hirigoyen andreak Yolande Huguenard andreari, Carmen Gonzalez andreak Véronique Larronde andreari, Camille Jenvrin jaunak Didier Irastorza jaunari.

Noblia andreak Herri Biltzarraren bilkura hasi du Bernadette Jougleux herriaren auzapeza guztion gogoetara ekarriz eta berriz ere biltzarraren buru laster ikusiko duten esperantza adieraziz. Christian Devèze lehen auzapezordeak lanbideak ezarri beharreatatik ezin etorria adierazi duenez, bera izanen da biltzarburu bilkura honetan.

1 – Bilkura idazkaria izendatzea.

Bertaratuek, **aho batez**, Véronique Larronde andrea hautatu dute bilkura idazkari.

2 – Azken bilkura agiria onartzea.

Noblia andreak biltzarkideei galdetu die ea erratekorik duten 2017ko irailaren 11n egin zuten herri biltzarraren bilkuraren agiriari buruz.

Inork deus erran ez duenez, aho batez onartu da azken bilkuraren agiria.

3 – Monumentu historiko gisa sailkatua den San Laurendi elizaren zaharberritze lanak: enpresak izendatzea eta lanen gidaritza kontraturako gehigarria

3a – Enpresak izendatzea.

Bardin jaun auzapezordeak gogora ekarri du ezen, 2015ean, Herriak adierazi zuela San Laurendi eliza zaharberritu eta balioztatzeko lanak egin nahia zuela eta eliza Monumentu Historiko gisa sailkaturik dela 2015eko irailaren 21z geroztik. Akitania Berriko Eskualdeko Kultura gaietarako Zuzendaritzak hala aholkatu eta Herriak Catherine Matveieff, Baionan ondarearen arkitektoa denari agindu dio lanen adierazpen dosierra ezar dezan, bai eta eraikinaren kanpoko nola barneko lanen aitzinetiko azterketa egin eta kostua kalkula dezan.

Monumentu Historiko gisa sailkatu eraikinaren gaineko lanak egiteko baimena eman du Akitania Berriko Eskualdeko prefetak 2016ko urriaren 21ean. Catherine Matveieff andreak Herriari proposatu dio guztira 1 072 900 € ZG kostua ukanen duten lanak hiru fasetan (zati finko bat eta bi zati baldintzatuak) banatuko den hirurteko plan batean antolatzea, honako eduki honekin:

• 1. fasea: Ezkila dorrearen zaharberritzea (zati finkoa) – sei hilabeteko lanak, 2017an eta 2018an

- Kanpoko lanak: ezkila dorrearen hormak eta herriko aretora sartzeko hego-mendebaleko eskalera zaharberritzea (dorrearen R+1), kalostra aitzinekoa berritzea
- Ezkila dorrearen orratzaren teilatua berritzea,
- Ezkila dorrearen barneko lanak.

• 2. fasea: Nabearen eta buruaren kanpoko zaharberritzea (1. zati baldintzatuak) – sei hilabeteko lanak 2018an

- Kanpoko lanak: kanpoko hormen, nabearen eta buruaren zaharberritzea,
- Nabearen eta buruaren teilatua berritzea.

• 3. fasea: Nabearen barneko zaharberritzea (2. zati baldintzatuak) – zortzi hilabeteko lanak 2019an

- Nabearen eta buruaren barneko horniduretako lanak,
- Elizaren sarbideko kalostrearen zaharberritzea.

Gogora ekarri da 2017ko otsailaren 20ko datarekin onartu zuela Herri Biltzarrak 1. faserako lanen programa, 200 000 € ZG delarik kostua, bai eta Akitania Berriko Eskualdeko Kultura gaietarako Zuzendaritzak proposatu diruztatze plana ere. Lanen zati honen barnean, Herriak Estatuaren 80 000 euroko laguntza du (EKZ-DRAC) eta Akitania Berriko Eskualdearen 30 000 eurokoa.

Zazpi zatitan banatu merkatu publikoko deialdia egin zen, prozedura egokituaz, 2017ko urriaren 10ean, *Les Petites Affiches du Pays Basque et des Pyrénées Atlantiques* aldizkarian, *eadministration64.fr* plataforman eta Kanboko Herriaren webgunean. Eskaintzak aurkezteko azken eguna 2017ko azaroaren 6rako ezarri zen. Herriak hamazortzi eskaintza jaso ditu.

Merkatu Publikoen Batzordea 2017ko azaroaren 6an, astelehenarekin, bildu zen eskaintzen gutunazalak irekitzeko eta 2017ko azaroaren 15ean, asteazkenarekin, berriz ere, Catherine Matveieff, operazio honetan lanen gidari denak egin duen eskaintzen azterketa dosierra aurkez zezan.

Bi bilkura horien ondoren, Merkatu Publikoen Batzordeak proposatu du kontsultan aipatu irizpideen arabera ekonomikoki interesgarrien diren eskaintzak egin dituzten sozietateei ematea merkatua.

Herriak 2018an egin nahiko balu lanen 2. fasea: Nabearen eta buruaren kanpoko zaharberritzea (1. zati baldintzatua), laguntza eskatu beharko die hala Estatuari (Akitania Berriko EKZ-DRAC) nola Akitania Berriko Eskualdeari.

Honako enpresa hauek hautatu ditugu:

1, 2 eta 3. faseetarako:

1. zatia - Hargintza – Aldamioak (aurreikusi kostua ZG, 449 600 €): Baionako Arrebat enpresari, 217 475,13 € ZG
2. zatia – Zureria-estaldura-zink lanak (aurreikusi kostua ZG, 261 400 €): Hazparneko Duhalde enpresari, 150 228,84 € ZG

2. faserako:

3. zatia – Berina lehioak (aurreikusi kostua ZG, 72 900 €): Baionako Franzetti enpresari, 80 400 € ZG

1. eta 2. faseetarako:

4. zatia – Ezkilak-tximistorratza (aurreikusi kostua ZG, 9 000 €): Irisarriko Heurelec enpresari, 4 443 € ZG

3. faserako:

5. zatia – Igeltserotza (aurreikusi kostua ZG, 15 000 €): Kanboko Delanoy enpresari, 30 400 € ZG
6. zatia – Margoa-margo apaindurak (aurreikusi kostua ZG, 185 000 €): Tillac-eko L'Atelier 32 enpresari, 132 110 € ZG
7. zatia – Barne argiteria (aurreikusi kostua ZG, 80 000 €): La Verrie-ko CGV-Ciel enpresari, 77 800, 24 € ZG.

Lanen guztizko kopurua 692 857, 21 € ZG da eta aurreikusi kostua 1 072 900 € ZG. Bata eta bestearen artean dagoen aldea neurtzen egin huts batetik dator.

Bacardatz jaunak aipatu du EKZ-DRAC zuzendaritzaren laguntza, 80 000 €, eta Akitania Berriko Eskualdearena, 30 000 €, 200 000 euroko aurreikuspen kopurutik abiatuz kalkulatu direla. Galdetu du ea laguntza horiek lanen guztizko kopuruaren ehuneko batez kalkulatuak diren ala kopuru finkoa den eta ea EKZ-DRAC zuzendaritzari eta Akitania Berriko Eskualdeari lanen kopuru berriaren araberrako galdea egin ote zaien. Lanen 1. fasearako Herriak ordaindu beharko duen kopurua ezagutu nahiko luke.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio laguntzak fakturen zerga gabeko kopuruaren arabera kalkulatzeko direla, % 40 EKZ-DRAC zuzendaritzaren kargura dela eta % 15 Akitania Berriko Eskualdearen kargura. Arkitektoaren azterketa gastuak 65 000 € dira eta 1. fasearen lanen guztizko kostuari -146 000 €- erantsi zaizkio eta hortik atera da egin diren laguntza galdeak egiteko erabili den ustezko kopurua.

Bru jaunak baieztatu du ehunekoak egiazko fakturen zerga gabeko kopurutik abiatuz kalkulatzeko direla eta galdetu du ea Matveieff andrearen lansaria ustezko kostuaren ehuneko batez kalkulatzeko ote den ala prezio finkoa ote den.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio lansari hori egiazko kostuaren ehuneko batez kalkulatzeko dela.

Bardin jaunak gaineratu du lansari hori biltzarraren gai-zerrendako hurrengo puntuan dela.

Bacardatz jaunak galdetu du ea zergatik ez den 65 000 euroko lansari horren kostua lehenengo laguntza eskarian sartu.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio ezen 65 000 euroko kopuru hori 200 000 euroetara erantsiz gero, Herria gaizki ibiliko zela 265 000 euroko guztizko kopurura heltzeko. Kontuan hartuz lehen fasea urritu dela, gastua egiazko gastuetatik abiatuz emendatu behar da. Horregatik sartuko dira egin diren azterketa guztiak, besteak beste, argiteriari buruzkoak. Lanen gidaritza gastuen ehunekoa handiagoa izanen da lehen fasean, lanen hiru faseetan banatuz gero izanen zena baino. Bere ustez, Herriak EKZ-DRAC zuzendaritzari azaldu zaionaren beste edo handiagoa izanen da.

Bacardatz jaunak dio ezen arkitektoak metroak neurtzen huts egin ez balu, Herriak EKZ-DRAC zuzendaritzaren eta Akitania Berriko Eskualdearen laguntza apalagoak ukanen zituela. Ez du ulertzen zergatik Herriak ez duen proiektu osoaren gaineko laguntza galde egin.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio Herriak eskatu duen dirulaguntza Matveieff andreak aurreikusi lanen kopuruaren arabera eskatu duela. Hiru fase dituen proiektua da. Proiektu osoa aurkeztu dute, baina EKZ-DRAC zuzendaritzak fasez fasez erantzun du. 1. faseaz erantzun du oraingoz, eta 2018an, 2. eta 3. faseetaz erantzunen digu, zeren, deialdiari esker, Herriak orain ezagutzen baitu aurreikusia den kopuru zehatza. EKZ-DRAC zuzendaritzak operazio osoaz erantzunen digu, baina hiru faseetan.

Bacardatz jaunak azaldu du lanen gidaritza handiagoa dela 2. eta 3. faseetan, lanen kopurua 546 000 eurokoa baita. Kontuan hartuz EKZ-DRAC zuzendaritzak faktura ukan ondoren ordaintzen duela, azterketa gastu guztiak ezin dira 1. fasean fakturatu.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio EKZ-DRAC zuzendaritzarekin ez dela arazorik izanen 1. faseari karga handiagoa emateko, Bacardatz jaunak lehen fasearen eta bigarren fasearen lan gidaritzaz aipatu duen desorekarekin ere. EKZ-DRAC zuzendaritzak badaki nola aritzen diren kolektibitateak eta ez da inongo arazorik izanen faltsu izanen ez den kargu hartze horretarako, EKZ-DRAC zuzendaritzak osoki onartu duen operazio baten egiazko kopuruaren gainekoa izanen baita; elementu garrantzitsua da hori, hiru faseak izan baitira onartuak eta agindu bidezko jakinarazpena, berriz, faseka egiten da. Ez da arazorik izanen lehen faseari berez duena baino lan gidaritza kostu handiagoa ezartzeko.

Bardin jaunak honako hau galde egin dio Herri Biltzarrari:

- Baimena eman diezaiola auzapez andreari, merkatuak eta haiei lotu dokumentu oro sina ditzan hautatu dituzten enpresekin.
- Bigarren faserako lanen programa onar dezan, honako kopuru honekin: 300 000 € ZG,
- Baimena eman diezaiola auzapez andreari Estatuari (EKZ-DRAC) eta eskualdeari lanen 2. faserako laguntza eska diezaien.

Aiçaguerre andreak zehaztu nahi luke, bozkatu aitzin, bere taldeak onartuko dituela hautatu diren enpresak, bertako enpresak baitira, baina proiektuaren aurka dela. Eliza zaharberritzea baino lehenago egin beharko liratekeen beste gauzak daudela iruditzen zaie.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

3b – Lan gidaritzaren kontratuaren gehigarria.

Bardin jaunak gogora ekarri du ezen, Akitania Eskualdeko Kultura gaietarako Zuzendaritzak hala aholkaturik, Herriak Catherine Matveieff, Baionan ondarearen arkitektoa denari agindu diola lanen adierazpen dosierra ezar dezan, bai eta eraikinaren kanpoko nola barneko lanen aitzinetiko azterketa egin eta kostua kalkula dezan.

Matveieff andreak aurkeztu lansari proposamen bat sinatu zen 2013ko otsailean, bi zeregin hauetarako:

- Zaharberritze aitzinetiko azterketak, honako prezio finko honekin: 8 000 € ZG,
- Eraikitze baimena egitea, lanen faseak zehaztea, enpresei deialdia egiteko eta lan gidaritzaren laguntze lanetarako dosierra prestatzea eta zaharberritze proiektuaren lanak egitea gero.

Egiteko horretarako lansaria kalkulatzeko lanetarako aurreikusten den zerga gabeko kostuaren % 9ko tasa aplikatu da.

2015eko ekainean, aitzinetiko azterketaren arabera, lanetarako aurreikusi zen kopurua 1 116 900 € ZG izan zen eta onartu zen lansaria guztira 100 521 € ZG izan zen 2. faserako. Merkatu deialdia egin zenean, Matveieff andreak adierazi zuen huts bat zegoela hasieran egin zuen lanen kopuruaren komunikazioan, neurtzean eginiko huts batengatik.

Lanetarako aurreikusi kostu zuzendua guztira 730 000 € ZG da eta bertan sartzen dira elizan, 2016-2017an, berogailu sistema ezartzeko lanetarako aurreikusi kopurua. ETI sozietatearekin sinatu ziren argindarra – barneko eta kanpoko argiteria zatiaren gehigarriak mantentzen dira: 13 225 € ZG.

Baiezatu beharko litzateke 3. gehigarrian aipatzen den MATVEIEFF andrearen 2. faserako lansaria, lanetarako aurreikusi kopuru berria honela kalkulatu:

Aplikatu den ehunekoa: % 9

Lanetarako aurreikusi kostua ZG: 730 000 €

Hartara, lansariaren kopurua ZG: 65 700 €.

Bacardatz jaunak 730 000 euroko lanen xehetasuna ezagutu nahi luke. Lanen guztizko kopurua 692 857, 21 € ZG gehi berogailu sistemaren 13 225 € ZG da, hau da, 706 082, 21 € ZG. Aldea nondik datorren galdetu du.

Bardin jaunak erantzun dio aldea berogailu sistemaren instalatzeari dagokiola.

Bacardatz jaunak galdetu du ea elizaren berogailu sistemak 25 000 euroko kostua ukan duen.

Bardin jaunak baietz erantzun dio; gehiago ere dela uste du.

Bacardatz jaunak berriz galdetu du aurreikusiak diren guztizko 730 000 euroen xehetasuna.

Bardin jaunak erran dio emanen diotela xehetasuna.

Bardin jaunak erran du Herri Biltzarrari proposatzen zaiola baimena eman diezaiola auzapez andreari Matveieff andrearen lanen gidaritzako lansaria aldatzeko 3. gehigarria sina dezan.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

4 – 2017ko saneamendu programa 1. eta 2. faseak: enpresak izendatzea.

4a - 1. fasea

Zerbitzuen zuzendari nagusiak gogora ekarri du Herri Biltzarrak, 2017ko irailaren 11ko bilkuran erabaki zuela programaren 1. fasearen lan gidaritzak IDEIA VRD azterketa bulegoari ematea; % 3.76ko ordainketa tasa eskaini zuen, hau da 11 281.25 € ZG.

Fase horretako lanetarako aurreikusi diru kopurua 300 000 € ZG da.

Lan gidaritzaren zereginerako aurreikusi lanak honako hauek ziren:

- Bekikatenea bideko sarea berritzea
- Delbarre sektoreko sarea berritzea
- Oihanburua bideko sarea izarian ematea eta berritzea
- Edmond Rostand etorbideko euri uren lotura oker bat ur zikinen saretik bereiztea.

Zerrenda hori ez da osoa eta lanetarako aurreikusi kopurua ez zen aitzinproiektu eta proiektu faseak egin arte erabakiko behin betiko, operazio bakoitzerako aurreikusi kopuruak zehaztu ondoren, sare bakoitzaren zahartze mailaren arabera.

Lekuetan bertan ikertu eta telebistaz egin ikuskapenak eta datu topografikoak aztertu ondoren honako lan programa hau proposatzen da:

- Venelles BEKIKATENEA eta ORGILENEA: Trantxada irekia 150 ml

Ordezkapena duen enpresak BEKIKATENEA estratan egin ikerketez gain, kolektibitateak udazken honetan ORGILANEA estratan kamera pasatu eta erakutsi digu hoditeria ere oso oso zaharkiturik zela. Hartara, hoditeria berritzea ere sartu dugu programan. Horrenbestez, saneamendu sarea etorkizunean ongi izanen da, heldu diren urteotan estratak berritu nola ez.

- DELBARRE sektorea – ESPAINIAKO etorbidea – POUPONNIERE – MALDAN eta TAULETXEA: Trantxada irekia 260 ml – Trantxadarik gabeko lanak (barnetik zorroa ematea) 320 ml
- OIHANBURUA sektorea: Trantxada irekia 40 ml – Trantxadarik gabeko lanak (zorroa sartzea) 130 ml
- EDMOND ROSTAND sektorea – MARRONNIERS: Saretik deskonektatzea, bi sareak bereizteko (10 ml inguruko trantxada)

Herriak deialdi bat egin du, prozedura egokituko merkatu baten bidez, 2017-1. faseko programaren lanak eginen dituzten enpresak izendatzeko. Lehiarako deialdia argitaratu eta dosierra linean eman dugu.

Enpresek beren eskaintzak aurkezteko azken eguna iragan azaroaren 20a, astelehenarekin, zuten.

Merkatu Publikoen Batzordea egun horretan bertan bildu zen, 14:00etan, gutunazalak irekitzeko, eta arratsalde honetan, 14:00etan ere, lanen gidariak azterketa txostena aurkez zezan.

Eskaintzen zerrenda taulan hautagai aurkeztu ziren hiru enpresak aipatu dira, bai eta bakoitzak hastapenean egin eskaintza eta negoziatu ondoren egin dituztenak ere. Aldea ez dator enpresek gutxiago proposatu dutelako, baizik eta Delbarre sektoreko lanak gutxitu direlako. Izan ere, hastapenean ikusiak ziren 300 000 euroak 37 000 € bilakatu dira.

Roc/Rehacana sozietateak egin duen eskaintza 431 204,60 € ZG da, Néo Reseaux sozietatearena 426 467,95 € ZG, eta ECRD/RCR taldearena 371 172 € ZG.

Halatan, bada, Merkatu Publikoen Batzordeak lanak ECRD/RCR taldeari ematea proposatu du, eskaintza merkeena egin baitu, 371 172 € ZG, hau da, 445 406,40 € ZB.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

4b - 2. fasea

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azaldu du zenbat luzatuko diren lanak bi faseetan. Hemendik hamar bat egunetara, legez ezarria den epearen arabera, jakinaraziko zaie gutun bidez hautatuak izan diren enpresei eta lanak prestatzen has daitezke orduan eta hemendik abenduaren hondarra arte luzatuko dira prestaketa horretan; lanak hiru hilabetez luzatuko dira, salbu bigarren fasean, laburrago izanen baita. Lanak 2018ko lehen hiruhilekoaren hondarrean bururatzekoak dira eta lanen bigarren fasea 2018ko otsailaren hondarrean buka daitezke.

Gogora ekarri du 2017ko irailaren 11ko bilkuran, Herri Biltzarrak erabaki zuela programaren 2. fasearen lanen gidaritzza SCE azterketa bulegoari ematea, % 3.75eko ordaintze maila eskaini baitzuen, hau da, 10 500 € ZG.

Fase horretarako, lanetarako aurreikusi diru kopurua 280 000 € ZG zen eta lanak honako hauek ziren:

Lanen gidaritzaren zereginetan ziren lanen hastapeneko zerrenda honako hau zen:

- Kanbo-behereko errepideko sarea geltokiaren eta trenbide gaineko burdinbide trebesagunearen artean berritzea
- Kanbo-behereko eta Agianeko Borda eta Garroenborda karrika itsuetako sarea berritzea

Zerrenda hori ez da osoa eta lanetarako aurreikusi kopurua ez zen aitzinproiektu eta proiektu faseak egin arte erabakiko behin betiko, operazio bakoitzerako aurreikusi kopuruak zehaztu ondoren, sare bakoitzaren zahartze mailaren arabera. Lekueta bertan ikertu eta telebistaz egin ikuskapenak eta datu topografikoak aztertu ondoren honako lan programa hau proposatzen da:

- LAVOIR sektorea: trantxadarik gabeko lanak (zorroa sartzea) 100 ml
- AGIANEKO BORDA ETA GARROENBORDA sektorea: han-hemenka eraztunak ezarriz
- GELTOKI sektorea: trantxadarik gabeko lanak (zorroa sartzea) 150 ml
- BURGAXILOA sektorea: trantxadarik gabeko lanak (zorroa sartzea) 340 ml
- HAURTZAIN sektorea: trantxadarik gabeko lanak (zorroa sartzea) 270 ml

Herriak deialdia egin du, prozedura egokituzko merkatu baten bidez, 2017-2. faseko saneamendu programako lanak eginen dituzten enpresak izendatzeko.

Lehiarako deiladia argitaratu dugu eta dosierra linean ezarri. Enpresek iragan azaroaren 20 arte, astelehenarekin, zuten beren eskaintzak aurkezteko.

Merkatu Publikoen Batzordea egun horretan bertan bildu zen, 15:00etan, gutunazalak irekitzeko, eta arratsalde honetan, lanen gidariak azterketa txostena aurkez zezan.

Fase horretarako 244 300 € ziren aurreikusiak. Hiru enpresa aurkeztu dira:

- Subterra sozietatea; proposatu kopurua, ZG: 158 730 €,
- Chantiers d'Aquitaine sozietatea; proposatu kopurua, ZG: 146 442,80 €,
- Vidéo Injection sozietatea; proposatu kopurua, ZG: 106 993,50 €.

Halatan, bada, Merkatu Publikoen Batzordeak merkatua Vidéo Injection sozietateari ematea proposatzen du, eskaintze merkeena egin baitu, hau da: 106 933,50 € ZG.

Bacardatz jaunak erran du bera ez zela Merkatu Publikoen Merkatuan baina harrigarri zaiola prezioen artean den alde handia. Bi enpresa ditugu prezio beretsuetan eta hirugarren batek % 35 gutxiagotan eskaintzen ditu lanak.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio horretarako badela azalpen tekniko bat. Zorroa enpresa horek berak egiten du eta beste biek erosi behar dute. Horrexek dakar hogeieguneko epea lanak prestatu ondoren. Urte zenbait bazen enpresa hori ez zebilela gure inguruetan, baina badirudi berriz aritu nahi duela Euskal Herrian.

Bardin jaunak hala dela baieztatu du. Aldea materialean datza. Enpresa horrek gauzak besteek baino lasterrago eta merkeago egin ditzake.

Bacardatz jaunari harrigarri zaio halako operazio batean materiala lan eskua baino garrantzitsuagoa izatea.

Bardin jaunak erantzun dio batzordearen bilkuran izan balitz ikusiko zituela kopuruak.

Bacardatz jaunak dio ez dela arazorik, ados dela.

Aizpuru andreak zehaztu du aurkeztu diren enpresa guztiak ezagun eta ongi balioztatuak direla Frantzia osoan. Ez da dudarik aurkeztu diren eskaintza guztiak seriosak direla. Vidéo Injection enpresaren alde ona zorroak berak egin eta, hartara, hornidura kostuak apaltzen dituela eta, horrez gain, lanak egiteko denbora ere laburtzen duela horrela eta horrek lanen gastu finkoak apaltzen ditu. Argi da hogeiegunetan enpresak ez duela beste enpresek bezainbeste instalazio gastu, lan lekuaren zaintze gastu eta taldeak mugitzeko gastu. Tokiko enpresa izan ez eta taldeak mugitzeko hamairu aste behar dituen enpresak askoz gastu handiagoak ditu lau asteko mugimenduak besterik ez duen enpresak baino.

Bacardatz jaunak galdetu du ea sektore guztietan aldi berean hasiko diren. Hala izanez gero, lau aste gogor izanen dira.

Aizpuru andreak jakinarazi dio enpresa horrek bi egunetan sartzen dituela zorroak isurbide begian, beste enpresek lau egun behar dituztelarik. Zona bat bestearen ondoren egingen ditu.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

5 – Ostatatze Gabeko Aisialdi Harrera: Aisialdi zentroaren animazioen zerbitzu emailea izendatzea.

Noblia andreak gogora ekarri du Kanboko GEUZ-CCASaren Administrazio Kontseiluak 2015eko apirilaren 10ean erabaki zuela Ostatatze Gabeko Aisialdi Zentroaren (OGAZ-ALSH «Haurren irla- L’Ile aux enfants») animazio zerbitzua (ikastaldi ingurukoa, asteazkenak eta oporrak) UFCV elkarteak (Opor Zentroen Frantziar Batasuna) eginen zuela. Hitzarmena hiru urtetarako sinatu zen, 2015eko irailaren lehenean hasi eta 2017ko abuztuaren 30 arte iraun zezan.

2015eko irailaren lehenaz geroztik, eskola erritmoen erreforma dela eta Estatuak ezarri betebeharrei erantzun nahiz, Ikastaldi Inguruko Jardunaldi berriak eman dira plantan UFCV elkartearekin elkarlanean; horretarako hitzarmena 2017ko ekainaren 30ean sinatu zen.

2016ko urtarrilaren lehenean, aisialdi harrera eta ikastaldi inguruko jardunaldiak Herriaren esku utzi ziren, hala erabaki baitzuen Herri Biltzarrak 2015eko irailaren 21eko deliberamendu batez.

2017ko martxoaren 27ko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak onartu zuen Ikastaldi Inguruko Jardunaldiak koordinatu eta kudeatzeko elkarlan eta animazio proiektua antolatzeko sinatu bi hitzarmenak luzatzea. Bi hitzarmen horiek 2017ko abenduaren 31n amaitzen dira.

Halatan, bada, Herriak bere aisialdi harreran, 2,5 urteetatik 13 urte bitarteko haurrentzat ikastaldi inguruko aldietan eta eskolaz kanpokoetan antolatzen dituen animazioak (jantoki zerbitzua barne) eta Ikastaldi Inguruko Jardunaldi Berriak (gai horretan hartu diren erabakiak kontuan hartuz) gauzatu eta haien jarraipena egiteko zerbitzu emailea izendatu behar du. Zerbitzu horrek hiru urte iraunen du, hau da, 2018ko urtarrilaren lehenetik 2020ko abenduaren 31 bitarte.

Deialdi bat egin genuen, prozedura egokitu batez, 2017ko urriaren 23an. Eskaintzak aurkezteko azken epea 2017ko azaroaren 16a zen, eguerdi puntuan. Herriak eskaintza bakarra jaso du. Merkatu Publikoen Batzordeak ireki zuen, 2017ko azaroaren 16an, 16 orenetan egin zuen bilkuran. Eskaintzailea UFCV elkartea da.

Zerbitzu horren iraupena hiru urtekoa da, hau da, 2018ko urtarrilaren lehenetik 2020ko abenduaren 31 bitartekoa. UFCV elkarteak honako eskaintza hau egin du: 884 085,49 € ZG 2018tik 2020 urte arteko aldirako, Ikastaldi Inguruko Jardunaldiak mantendu nola ez, zeren jardunaldi horietako hiru orenak asteazken goizetara pasako baitira, aisialdi zentroarekin batera. Eskaintza deialdiaren araudian ezarri irizpideen arabera aztertu dugu eta guztira, 20 puntuetatik, 19,1 lortu ditu. Merkatu Publikoen Batzordeak 2017ko azaroaren 23an azterketa txostena ezagutu eta eskaintza onargarritzat eman du.

Oinarrizko eskaintzak bere gain hartzen ditu animazio proiektuaren koordinazioa, asteazkenak, eskola oporrak, ikastaldi inguruko harrera eta Ikastaldi Inguruko Jardunaldi Berriak. Gastu guztia honela banatzen da: 288 070,41 € ZG 2018. urterako, 295 763,87 € ZG 2019rako eta 300 251,20 € ZG 2020rako.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du lehen emendatzea bigarrena baino goraxeagokoa dela, bukatzeaz ziren bi kontratu lagunduak baitziren eta lanaldi osoko lanpostu bilakatu baitira. Indizeen eguneratzea dugu ere hor, bai eta antzinasuna kontuan hartzea aurten egin dela, bai eta kudeaketa tasa %10etik %12ra pasatu dela; beste kolektibitateetan ikusi dugu %12tik %15era bitartekoa aplikatzen dutela.

Noblia andreak dio zerbitzu hori berrikerik daitekeela, beharren arabera, gehigarri bat ezarri.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

6 – L’Aiglon zinema: Zerbitzu Publikoa Ordezkaritzan berriz ematea, arranda bidez, kudeaketa, ustiapena eta mantenimendua egiteko.

6a – 2016ko jardunaldiaren urteko txostena.

Lespade andreak dio «L’Aiglon» zinema aretoaren kudeaketa Herriarena dela eta 2008az geroztik Marie-Hélène DOILLET andreari utzi zaiola, aretoa haren esku hiru urtez, hau da, 2008tik 2010era bitarte, uzteko hitzarmen baten bidez eta horren ondoren hitzarmenari egin zaiokion bi gehigarriren bidez, 2011n eta 2012an sinatuak.

2009ko martxoaren 26ko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak Zerbitzu Publikoa arranda bidez Ordezkaritzan ematearen printzipioa onartu zuen.

Ordezkaritza hori 2013ko abenduaren 17ko deliberamendu batez onartu zen, 2013ko urtarrilaren lehenean hasi eta 2017ko abenduaren 31 arte, hau da, bost urtez, iraun zezan.

Lurralde kolektibitateen Kode Nagusiaren L 1413-1 artikulua eta bi aldeen artean sinatu ordezkaritza hitzarmenaren 27. artikulua betez, ordezkaritza duenak urtero aurkeztu behar izan ditu, apirilaren 15 orotan, eginiko jardunaren txostena eta urteko kontuak (bilanak eta emaitzen kontua).

2016. urtean, 593 emanaldi izan dira zineman eta horietan 11 579 sartze saldu dira, hau da % 17eko emendatzea gertatu da 2015. urtearekin konparatuz gero. Adierazi duen negozio kopurua 69 613 eurokoa da, eta gastuak 55 825 €; horrek 13 688 euroko irabazi garbia ematen du, zergak kontuan hartu gabe.

Herri Biltzarrari «L’Aiglon» zinemaren 2016ko zerbitzu publikoaren ordezkaritza txostena onar dezan eskatu zaio.

Noblia andreak argitu du gai horren gainean ez dela bozkatzeko.

Beyrie andreak seinatu du «Amama» dela gehien ikusi den filma, hau da, euskarazko film bat, eta azpimarratu nahi du badela halako filmetarako ikusle kopuru bat eta, hartara, ongi litekeela euskarazko film gehiago programatzea.

Lespade andreak erantzun dio hurrengo puntuan zuela horretaz mintzatzeko asmoa.

Barbier jauna bilkura aretotik alde egin eta ahalordea Eliane Aizpuru andreari eman dio.

6b – 2018tik 2022 urte arteko aldirako zerbitzu emaila izendatzea.

Lespade andreak gogora ekarri du ezen Herri Bilkurak, 2017ko ekainaren 19ko deliberamendu batez, onartu zuela «L'Aiglon» zinemaren ustiapenerako arranda bidezko zerbitzu publikoaren ordezkari berritzeko printzipioa, bai eta baldintzen agiri gisa balio duen hitzarmena ere.

Prozedura horren barnean, prozedura egokitu bidezko deialdia egin da. Lehiarako Deialdi Publikoa 2017ko ekainaren 23an eman zen argitara behar zen lekuetan.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean, hau da, 2017ko uztailaren 31n, eskaintza gutun bat hartu genuen. Gutunazala ireki eta hautagaitza onartu zen. Eskaintza ireki eta aztertu da.

Deialdiak honako helburu hauek ditu:

- Zinema aretoaren ustiapena (110 leku),
- kudeaketa,
- aretoaren animazioa; adin orotako jenderentzako programak, gizarte partzuarren politikarekin eta ekintzekin koherentzian,
- elkarlana: tokiko elkarteekin, erakundeekin,
- programatzea: arte eta saiakera,
- eskola eta kolegioentzako emanaldi bereziak.

Zerbitzu Publikoaren Ordezkaritzarako Batzordeko kideen izendapena Herri Biltzarrak egin zuen 2014ko apirilaren 7an egin deliberamenduan. Batzordea 2017ko uztailaren 31n bildu zen gutunazalak irekitzeko.

Hautagaitza balioztatzeko honako elementu hauek hartu dira kontuan:

- hautagaiak eman lanbide eta diru bermeak,
- zerbitzu publikoaren jarraipena segurtatzeko ahala,
- erabiltzaileek zerbitzu publikoa erabiltzeko berdintasuna ziurtatzea.

Eskaintza balioztatzeko honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- proposamenaren kalitatea, erabiltzaileei eskaini zerbitzuaren kalitatea (funtzionamendua, irekialdia, programa, tarifak, zerbitzuaren komunikazioa eta sustapena, proposaturiko animazioak, aurreikusiriko kontuak...)
- Hautagai den enpresaren gaitasunak: egitura, erreferentziak, gaitasunak eta baliabideak,
- Hitzarmena eta baldintzen agiria betetzea, ordezkari berritzeko emailearen helburuak betetzea.

Zerbitzu Publikoaren Ordezkaritza Batzordea 2017ko urriaren 3an bildu zen, hautagaiarekin mintza eta hari informazio gehiago eskatzeko. Batzordeak erabaki zuen Doillet andreak betetzen zituela kalitatezko programazioak ezkatzen dituen baldintzak eta urtean gutxienez lau animazio eginen ditu; ikusle berezientzako ekintzak egitea; Estatuaren edota lurralde kolektibitateen kultura erakundeek abiatu proiektuetan parte hartzea, ekipamendua publiko ororen aitzinean sustatzea, irakasleei, elkartei, komunikabideei proposatzea. Tarifak ez dira aldatu.

Beyrie andreak seinatu duen bezalaxe, Lespade andreak aipatu du eskolentzako programazioa dela eta, ikastetxeen artean arrakasta handia dutela euskarazko filmek.

Aiçaguerre andreak zehaztu du «Amama» filma publiko ororentzat zela eta ez zela eskolentzat bakarrik programatu.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

7 – Tokiko Hirigintza Planaren Berrikuspena.

Bardin jaunak zehaztu du Herri Biltzarrak ez duela THParen alde edo aurka bozkatuko; aldeko edo aurkako iritzia eman eta balidatu besterik ez duela eginen, erabakia hartu Euskal Hirigune Elkargoak hartuko baitu.

2017ko uztailaren 21eko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak THParen berrikuspen orokorra eman zuen abian:
THPa legeriari egokitzeaz gain, Herriak honako helburu hauek finkatu zituen:

- Herriaren ekonomia garatzen jarraitu eta garapen hori laguntzea, betiere kontuan hartuz laborantza jardunetarako aldean eta naturaguneen paisaiaren kalitatea eta tokiko ekonomia aberatsa bultzatuz
- Biztanle kopuruaren goratzearekin batera joatea eta gizarte mistoaren aldeko ahaleginetan jarraitzea, horretarako behar diren bizitegien gaineko (hala kopuruei nola kalitateari dagokienean) gogoetari ekinez
- Bizitegiak egiteko dauden aukerak atzeman eta sailkatu (zaharberritzea, trinkotzea, berria...) betiere orain den trinkotze maila zainduz garatzeko (oso trinkotik gutxiraino)
- Hiri Barnea zaintzea, eraikitzeen eta antolamendu proiektuen kalitatea kontrolatuz, hala hiritartzei so eginez nola paisaiari so eginez,
- Hiri barnearen nortasuna atxikitzea, ur hiriaren ezaugarri diren arkitektura elementuak (etxe handiak, trinkotasun eskaseko auzoak) eta paisaiak (espazio publikoak, lorategiak, hiribideak) atxikitzea,
- Herriaren berezko auzoen atxikitze eta bilakaera laguntzea
- Hiriaren sarbideei balioa ematea
- Zerbitzuak, saltegiak eta hornidurak garatzea, mugitzeko modu ezti eta alternatiboen gaineko eta aparkalekuen gaineko gogoeta eginez (bereziki artamendu zentroekin eta ur onen jardunarekin loturik)
- Laborantza gunek eta oihanak babestu eta balioztatzea, bai eta naturagune eta paisaiak, ikuspuntu funtzional batez.

Herri Biltzarrak 2016ko otsailaren lehenean, antolaketaren eta garapen iraunkorrerako proiektuaren orientabide orokorren (PADD) gaineko bilkuran eztabaidatu zuen horretaz.

Eztabaida horren ondoren, lan bilkura bat egin zen, DDTM erakundearekin, 2017ko otsailaren 20an eta DDTM erakundeak PADD hori espazio gutxiago xahutzeko helburuak azaltzeko moduan osa zezan eskatu zion Herriari. Trinkotasun helburua ez zela aski erran zuen. Helburu hori gogoetan eta zonaketan aitzina joan ondoren zehazteko asmotan ginen.

DDTM erakundearen eskaera hori dela eta, biltzarkideei eman zaizkien dokumentuekin batera azken paragrafo bat erantsi da, honela dioena:

THPean egin den espazio kontsumoa 14 bizitegikoa izan da hektareaka eta gehienbat bizitegi kolektiboak egin dira (% 56 izan dira 2010-2014 aldian). Herria saneamendu kolektiboa duten lekuetan besterik ez garatzeak espazioa ez xahutzeko moduan erabiltzera garamatza. Hektarea bakoitzeko, batezbeste 15-20 bizitegi eraikitzeke helburua finkatu du Herriak, batez ere AU zonetan arituz, horrela trinkoago egin baitaiteke. Jadanik eginak diren eraikinak erabiltzea aukera ona da, ondarea atxikitzeaz gain (bereziki laborantza edo natura aldeetan) lur gutxiago xahutzen baita. Laborantza, natura eta oihan lekuen xahutze maila urtean 2ha23ko mailan ezarri da 2009-2016 aldirako. Bizitegiak egiteko kontsumoa urtean 2 ha ingurukoa nahi du Herriak (+/- % 10).
Herriak azken THPan xahutu zena baino gutxiago xahutzeko helburua du.

Herri Biltzarraren 2017ko martxoaren 6ko deliberamendu batez, Herriak baimena eman zuen berak hasi zuen THParen berrikuspenarekin Euskal Hirigune Elkargoak jarrai dezan. Euskal Elkargoak du, 2017ko urtarrilaren lehenaz geroztik, hirigintza agirien gaineko eskumena.

Bardin jaunak dio berrikuspen horri loturiko dokumentu guztiak biltzarkide orori igorri zaizkiola e-postaz. Dokumentu horiek herriko etxean ziren ikusgai. Oposizioko zenbait kidek hala eskatu eta fotokopiatu eta igorri ditugu, azter ahal ditzagun.

Zehaztu du berrikuspen horren aurkezpen txostena gehiengoa duen taldeari aurkeztu zaiola, bilkura batean, bai eta hirigintza batzordeari ere.

Bardin jaunak THP horren puntu garrantzitsu batzuk aipatu ditu eta biltzarkideei egungo THParen eta etorkizuneko THP berrikusiaren zonaketen erkaketa bat dakarren dokumentu bat eman die:

Dokumentu horretan hainbat zona agertzen dira:

Herriaren eremua: 2 249 ha.

- UA zona, Kanboren hiri barnea, elizatik terrazen karrikarantz hedatzen da, herriko etxea, herriko etxearen aitzineko auzoa eta Cyrano egoitza hartuz, orotara 10ha27. Egungo THPan azpizona anitz zegoen. Hori argitzeko, hiru zona besterik ez egitea erabaki da, UA, UB eta UC zonak, baina azpizonarik gabe. Egungo THPan, hiru zona horiek 247ha46 hartzen dituzte eta hurrengoan, berriz, 226h54 hartuko dituzte; horrek eraikigarri diren lurren gutxitzea dakar.
- UE zonan, non osasungintzako erakunde guztiak eta Ueth zentroa, hau da, bainuetxea, dauden, 2 hektareako emendatze txikia dago, bainuetxearengatik.
- UY zona, jardun eremuak, eta UYg, geltokia, handiago da THP berrian.
- AU zonetan badira 1AU eta 2AU zonak. 1AU zona arras txikiagoa da, 18ha37 baitzitu eta 10h62 ukanen baititu. 1AUUY zona handitzen da, Intermarché aitzinean zona berri bat sortu baita, lursail horren aitzinean den Alki sozietatea bertan kokatzeko. Enpresa horrek handitu beharra du, jarduna gora baitoakio eta negozio kopurua emendatu baitu; egun, 35 langile ditu. Euskal Herriaren barnealdean geratu nahi du eta ikusia izan. Horregatik jarri da sozietate hori Herriarekin harremanetan eta Vincent Bru jaunak lursail hori proposatu eta haiek onartu dute. Horrek enpresa modernizatzeko aukera emanen du, beren produktuak aurkezteko *showroom*

bat kokatzeko, bai eta ekoizteko tresneria emendatzeko, hemendik 2020-2022ra 60 langileak biltzeko helburua baitu. Etorkizunerako instalazio hori interesgarri zaio Kanboko herriari. 2AU zonako lurak gutxitu dira, besteak beste, laborantza jarduneko lursail bat; horretarako lursaila izan da orain arte, orain ere horretarako da eta horretarako izanen da oraindik urte zenbaitez. Jardun hori atxiki beharra dago.

- Oro har, egungo THPan, herriak 349ha28 ditu zona eraikigarrian eta etorkizuneko THPan, berriz, ez du 309ha80 besterik ukanen. Horrek espazio eraikigarriaren %11ko gutxitzea dakar.
- Laborantza zonak bi zona ditu: A zona, laborantza zona, eta Ap zona, laborantza zona babestua. Egungo THPan, Ap zona oso handia zen, oso-oso handia gutzitzeko laborantza eremuarekin konparatuz. Gero eta laborari gehiagok galde egiten zuten zona babestuan eraikinak egiteko baimena, batez ere biper ekoizleek, eta horregatik azterketa bulegoa lekuetara joan eta aldatu beharreko zonak zerrendatu ditu. Halatan, bada, Ap zona nabarmen aldatu da eta orain ez du 234ha29 besterik, baina laborariei on handia ekarri die hori, laborantzarako eraikinen bat beharrez gero eraiki ahalko baitute. Laborantza eremua 920ha24 izatetik 1 009ha14 izatera pasako da, hau da, + % 10.
- Natura eremua, N, % 5ean gutxitu da eta 979ha48 neurtzetik 930ha06 neurtzera pasa da. Natura eremu zenbait laborantza eremu gisa ezarri dira. Natura eremuak honako zona hauek ditu:
 - N zona: natura zona,
 - Nbd zona: bioaniztasuneko natura zona,
 - Na zona: herri antolamendu kolektiboetarako zona,
 - Nl zona: akanpalekuetarako zona,
 - Ny zona: ororen onerako instalazioetarako zona (lehengo hondakindegia zaharra, Kanboko gailurren errepidean)
 - Nens zona: naturagune minbera (arditegiko muinoa).
- Laborantza eta natura zonen batura 1 899h72 neurtzetik 1 939ha20 neurtzera pasatzen da, eraikitze zonen gutxitzeagatik.

Bardin jaunak zehaztu du THP honen puntu garrantzitsua alokairu lagunduko bizitegiarena dela (LLS). Lurralde Koherentzia Eskemak «barnealdeko herri txiki» gisa aurkezten du Kanbo. Hala izanik, kolektibitateak alokairu lagunduko % 15eko bizitegiak sortzen hartu behar du parte, baina Euskal Hirigune Elkargoa sortu denetik, herriari % 25 sor ditzala eskatu zaio. Euskal Elkargoarekin eztabaidan aritu ondoren, % 17ra jaitsi diote parte hartze hori 2019. urte bitartean eta ez du horren isuna ordaindu behar ere.

2013. urtean, herriak alokairu lagunduko 200 bizitegi zituen. Egun, 230 ditu; hortatik, DDTM erakundeak kalkulatu dio 644 egin behar dituela, 2025 bitartean, behar dituen %25etara heltzeko. Horrek erran nahi du Herriak urtean 50 bizitegi egin behar dituela. Gehiengoan den taldeak ehuneko horretara heltzeko asmoa du, egun ditugun biztanleen %80ak baitu bizitegi lagundua eskuratzeko eskubidea. Alokairu lagunduko bizitegien % 25era heltzeko, halakoak eraiki ahal izateko ehunekoak eta betebeharrak seinatu dira araudian, batez ere UB eta UC zonetan; egungo THPan ez dago horrelakorik eta %40raino hel daitezke. Bizitegi lagunduak espazio zabaletan eraiki daitezke, AU zonetan, hiri barnean ez bezala. Aukera hori AU zonan dago; han % 40 bizitegi lagunduak izan daitezzen erabaki da. Horrekin guztiarekin ere ez da aski %25era heltzeko.

Bardin jaunak aipatu nahi duen azken puntua Herriak natura eta laborantzari itzultzen dizkien espazioak dira. Etorkizuneko THPan, 11ha08, (0ha79 eraikirik eta 10ha29 eraikigabe) A eta N zonetatik THP berrikusiaren zona eraikigarrietara pasako dira. Aldiz, 49ha44, (14ha65 eraikirik eta 34ha79 eraikigabe) egun U zonan direnak, THP berrikusiaren N eta A zonetara sartuko dira. Lekualdaketa horien arteko aldea 38ha36 dira, (13ha86 eraikirik eta 24ha50 eraikigabeak, eraikigarri izatetik eraikiezin izatera pasatzen direnak).

Hiriart-Urruty andreak azpimarratu du dokumentu horiek oso trinko direla. Oposizio taldeak hainbatetan errana du jadanik deitoratzen duela zein elkar aditze eskasa dagoen eta oposizioa berrikuste lanetatik bazter utzi izana. Argitu du hirigintza batzordeak gonbidatu duen bilkura orotara joan dela bera, baina guztiz eskasa zela hori paperezko dokumentuak ukan ezean. Bere taldeak iragan asteartean jaso ditu 1000 orrialde inguru eta horrek oso tarte eskas uzten du dokumentu horiek guztiak aztertzeko.

Bardin jaunak erantzun dio hirigintza batzordearentzat behin-behineko dokumentuak besterik ez zituztela. Dosierra hamar bat egun lehenago jaso beharko zukeen, baina berak ezagutzen ez dituen eta azterketa bulegoari loturik diren arrazoiengatik, dosierra iragan astelehenean igorri zaie. Ulertzen du, bai, dossier osoa bereganatzeko zailtasuna. Berari dagokionean, asteburu oso bat eman du horren gainean lanean.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio berak ere hala egin duela, baina astean zehar lan egiten du berak eta besteek ere berdin. Txostena irakurtzean, koherentzia eza txiki batzuk atzeman ditu; adiago irakurri beharko litzateke berriz. Bizitegi lagunduei dagokienean, 2015eko azken epea aipatua da, batzuetan, berriz, 2030, eta berak ez daki zergatik bata eta bestea ageri diren. Eraikigarri den zonari dagokionean, galdetu du ea zer den 2ha67 dituen «Hayderria» zona eta zer 5ha93 dituen «Basseboure» zona. Erran du aldi bakoitzean izendapen bat erabiltzen dela eta horrek zailtzen duela zonak kokatzea.

Bardin jaunak erantzun dio «Hayderria» zona Paskalekuren jalgian den zona dela eta «Basseboure», berriz, Paskalekuko zona dela.

Hiriart-Urruty andreak galdetu dio ea hor 5ha93 eraikigarri izanen ote diren.

Bardin jaunak erantzun dio Paskalekun ez daudela 5ha93 antolatzeko.

Aiçaguerre andreak zehaztu du txostenean badirela, batzuetan, nahasketak izenekin.

Hiriart-Urruty andreak gaineratu du badirela berak ulertzen ez dituen koherentzia ezak eta 5ha93 ez dela hutsaren hurrengoa.

Bardin jaunak ez du zona hori bere dokumentuetan atzematzen.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio berak ez duela beste asteburu bat emanen guztia xerkatzen. Jarraitu du erranez ezen «Antchoberroa» zonak hartzen dituela hilerria, 3ha28 dituzten «sallagoity-colbert» lursailak eta 2ha dituzten «Larronde» lurak. Estadioaren giblean herriaren lursail bat UE izatetik bizitegiak egiteko UB izatera pasatu dela. Galdetu du ea lursail hori «Usimendia» den eta zenbateko azalera duen.

Bardin jaunak baietz erantzun dio. 1ha40 neurtzen du

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea baden Herriaren beste lursailik.

Bardin jaunak baietz erantzun dio.

Hiriart-Urruty andreak zeintzuk diren jakin nahi du.

Bru jaunak erantzun dio badela bat «Gassuan» lursailaren gibelean, «Lacosta» aldera daraman basabiderantz eginez, lehengo kinesiterapeutaren aitzinean. Lursail hori patar da eta Herriak ez du eraikigarri bihurtu nahi, erreserban atxikiko du.

Hiriart-Urruty andreak aipatu du badela «Tillac» lursaila ere, Herriak erosi berria.

Bardin jaunak erantzun dio lursail hori ez dela oraino Herriarena. Neurriak hartu behar dira oraindik eta hemendik 2017 urtearen hondarrerako eginen dela espero du. Administrazio egiteko guztiak eginik izan arte ezin da Herriarena denik erran.

Aïçaguerre andreak galdetu du ea ez den eperen bat laguntza funtsarekin erosten diren lursailak erosteko. Dossier hori 2016ko martxotik baitabil hor.

Bardin jaunak erantzun dio Herria ez dela erosle bakarra; bada Toki-Eder sozietatea ere eta horrek beranta hartu du dokumentuak ematen. Tillac andreak aldi bakar batean egin nahi zuen notariotza akta eta horregatik hartu du beranta dosierak.

Aïçaguerre andreak uste zuen laguntza funtsak oso arauturik zirela eta lege zerbaiten pean.

Bardin jaunak erantzun dio Herria gainean dela.

Hiriart-Urruty andreak bizitegi lagunduen gaineko galdera bat zuen, baina Bardin jaunak txostena aurkeztean eman dio jadanik erantzuna.

Bardin jaunak zehaztu du Herriak laguntzapeko 200 bizitegi dituela egun eta % 25era heltzeko, 644 egin beharko lituzkeela 2025. urterako, baina ez du ikusten nola hel litekeen Herria helburu horretara. Eraikuntza oro bizitegi lagunduetarako beharko luke izan.

Aïçaguerre andreak galdetu dio ea bizitegi lagundua besterik ez egiteko borondate politikoa ez daitekeen izan.

Bardin jaunak erantzun dio, horren arabera, eraiki nahi duen orori debekatu behar zaiola eraikitzea.

Hiriart-Urruty andreak bere arrazoiketa bururatu du. Uste du Bardin jaunak erran duela ez dutela isunik ukanen 2019 arte. Gero zer gertatuko den galdetu dio.

Bardin jaunak erantzun dio puntu hori Euskal Elkargoarekin berriz negoziatuko dutela. Dispentsa luzatuko dietela espero du.

Bru jaunak zehaztu du hainbat irizpide dagoela SRU legearen pean izateko. Bat biztanleria da, bestea Hirigunearekiko distantzia. Horrexegatik da, hain zuzen ere, Uztaritzeko herria jadanik horren pean, 3500 biztanle baino gehiago dituelako eta Hirigunearen mugatik 15

kilometro baino gutxiagora dagoelako; horrexegatik aldatu diote THPa. Kanboko herria, Hazparne bezala, ez da Hirigunearen 15 kilometroen barnean. Euskal Hirigune Elkargoa sortzeak pentsarazi die guztiei Kanbo arau horren menara pasako zela, elkargoaren barnean zelako. Zentzugabea da hori. Berant baina, erran da hirigunea INSEE institutuak ematen dion zentzuan ulertu behar dela eta ez Hirigune Elkargo estatutuaren zentzuan. Herriak dituen informazioen arabera, dekretu bat jalgitzekoa da hiru herri betebeharrak horretatik salbuesteko: Hazparne, Kanbo eta Senpere.

Bardin jaunak erran bezala, Herria, orain, SRU legearen menean ez bada ere, baliteke egunen batean hala izatea, hirigunea hedatzen ari baita eta arazoak hor dira beti. Bardin jaunak borondate politiko bat azaldu du, zernahi delarik ere, 1AU lursail handietan batez ere, alokairu lagunduko bizitegiak % 40ean egiteraino heltzeko. Baina hala eginez, 60 bizitegi gehiago sortuko ditugu eta horrek biztanleen kopurua emendatuko du; amaigabeko lasterkaldia da hori.

Bru jaunak uste du funtsezkoena THPa Kanbok alokairu lagunduko bizitegien alde garelako azaltzea dela. Bide horretatik joan behar denaren uste osoa du, zenbait hautetsik, oposiziokoek bereziki, erraten badute ere % 25eko kuota horretan eroste lagunduko bizitegiak ere sartu beharko lirakeela, badirelako alokairu lagunduko bizitegia ukan ondoren, bizitegi hori utzi eta beste zerbait erosi -edo alokatzen zuten bizitegi hori erosi- beharrean izanen direnak ere. Hala eginez, salmentaren dirua eraikin berrien eraikuntzarako baliu daiteke. Hori guztia hausnartu beharra dugu, baina Herria SRU legearen menean izan nola ez izan, Bardin jaunaren proposamena bete-betean onartu behar dugu, hau da, «abia gaitzen, nolahi ere, eta bizitegi proiektu handiak dituzten lursail handiak gogor jo ditzagun, alokairu lagunduko bizitegien ehunekoa %40ean ezarriz eta lursailen prezioa mugatuz» zeren orok uler dezake zernahi egiteko balio duen lursail gehiegizko prezioan salduko dela eta lursail horri alokairu lagunduko bizitegien % 40eko betebeharra ezarriz gero, ordea, lurra tarifa onargarrietan mantentzera lagunduko dugula.

Hiriart-Urruty andreak bere gogoetarekin darrai eta Bru jaunarenarekin bat egitera dator: «Berrikuspen honen helburuetako bat 2030ean 9 000 pertsonari bizitegia eskaintzea da eta, hartara, 750 bizitegi egitea 2017tik 2030ra bitartean».

Bardin jaunak zehaztu du, 9 000 pertsonari dagokienez, 7 200 senitarte direla; gainerakoak osasun etxeetan dira.

Hiriart-Urruty andreak gogoratu dio bera ez zela erabat ados 1000 pertsonako kopuru horrekin. Horri dagokionean, urtarril arte goaitatu beharko lukete, beharbada, INSEE institutuaren azken kopuruak ukan ditzagun.

Bardin jaunak erantzun dio 2017ko urtarrilean egin zela errolda eta emaitza 2018an espero dutela.

Hiriart-Urruty andreak bere gogoetari heldu dio berriz:

«Egin beharreko bizitegi kopuru handi horrek laborantza lurren artifizialtzea dakar. Alta, THPa txostenak laborantza sostengatu behar dela dio, lurrekin den arazo nagusietako bat dela lur onenak hiri garapenarekin lehian direla; gogora dezagun LuKEaren helburu nagusia laborantza lurren begiratzea dela.

Desira hutsalak besterik ez direla iruditzen zaigu, zeren dokumentua irakurri eta ikusten baitugu laborantzarako oso baliosak diren lurren artifizialtzea onartzen duzuela, adibidez Sallagoity-Colber senar-emazteen lurak, 3ha ordoki, egun laborari batek lantzen dituena. Proiektu hori horregatik jadanik deitoragarri bada, are eta deitoragarriago da ikusirik dokumentuak berak paisaia ederrekotzat hartzen duen herri sarbide ederra aldatzen duela.

LuKEak hemendik 2030 bitarte 750 bizitegi egin daitezen gomendatzen du, baina INSEE institutuaren kopuruak ikusirik, Kanbon, 2014an, 3 756 bizitegi genituen, haietarik 2 747 bizitegi nagusi, 728 bigarren bizitegi eta aldiari behingo bizitegi, eta 281 bizitegi huts. Ia 1 000 bizitegi ditugu, beraz, tokiko biztanleak urte osoan bizi daitezen erabiltzen ez direnak. Hala izanik ere, sinetsarazi nahi digute oraindik ere segitu behar dela bizitegiak egiten, ustiatzen diren eta elikadura ematen diguten laborantza lurren kaltetan.

2005. urtetik 2014ra, 30ha xahutu ditugu 515 bizitegi egiteko.

Dokumentu honetan, U zona -31ha- eta AU zona -14 ha- batuz gero, baditugu, guztira, 45 ha. 32 hektareako aukera aipatzen duzu, haietarik 12ha jadanik badiren multzoetan eta 19ha58 hedatzeko. 2030ean, hau da, hamahiru urte gabe, zenbat lur geratuko zaizkigu U eta AU zonatan? Berriz ere hartu beharko ditugu laborantza lurak? Non biziko dira gazteak? Nola elikatzen ahalko gara kalitatezko produktuekin?

Itsasertz ondoko zona batean gara eta gero eta beteago dugu lekua, hemen atzematen baitituzte eraikuntza proiektu handiek non garatu. Oso baina oso handia da heldu zaizkigun hamabost urteotarako jokoan duguna eta guri da eta zuei, biltzarkideoi, berant izan baino lehen datorkiguna aurreikusi eta etxegileen presioari buru egiteko neurriak hartzea, haientzat gure lurak ez baitira kontsumorako ondasun klasikoa besterik eta, batez ere, beren lanari emaitzak ekarriko dizkion dirubidea.

Nola egin hori?

- Herriarenak diren lurretan, lurren kontrola atxikiz eta horretarako ekimen pribatutik babestu beharreko zonak ezarriz eta alokatze enfiteutikoen bitartez erabiliz edota elkartasun lurren bulegoak baliatuz.
- Pribatuak diren lurretan: THPetan Gerora Antolatze Zonak (GAZ-ZAD) ezarriz.
- Bizitegi lagunduei dagokienean, THPea honako hau ezartzea: laupabost bizitegitik hamar bizitegi arteko programa pribatu berri edo zaharberritzeko orotan, alokairu lagunduko % 40 bizitegi egin beharra edo alokairu lagunduko % 30 bizitegi eta % 10 erosketak lagundukoak, eta hamar bizitegi baino gehiagoko programa orori alokairu lagunduko % 40-50 bizitegi eta % 20 erosketak lagundukoak.

Oraindik badugu zerbait egiteko aukera, dirua bildu besterik nahi ez duten etxegile eta pribatuen promesa zentzugabeei kasu egin ordez.

Oraindik badugu zerbait egiteko aukera, herritarren beharrei hurbiletik so eginez gero eta, hautetsi garen bezainbatean, gure egitekoa da eskuragarri diren bizitegi duinen eskaerari erantzutea.

Lurra guztion baliabidetzat hartu behar duzue, lurra guk berriz egin ez dezakegun zerbait denaz ohartu behar duzue eta, hartara, agor daitekeen zerbait, etorkizuneko belaunaldientzat atxiki behar dugun gizateria osoaren ondaretzat hartu».

Hiriart-Urruty andreak gaineratu du gehiengoaren duen taldearen proiektu horietan, bereziki Noblia txokolategikoan, zaharrentzako etxe baten proiektu bat dagoela eta hori ez zaio batere herrikoen beharra iruditzen. Leku horretan bada betoiztaturik den orube bat, artifizialdurik den lursaila; zergatik ez ia herri barnean den eremu hori baliabizitegi lagunduak eraikitzeko.

Bardin jaunak argitu dio Noblia txokolategia lursail pribatu batean dela. Aipatu duena entzun dio; oposizioaren iritzia da eta berak errespetatzen du.

Gerora Antolatze Zonari (GAZ-ZAD) dagokienean, erran du gehiengoaren duen taldeko zenbait kidek halako bat 2Auy zonan ematea proposatu dutela, hau da, Kanboko irteeran, Marienia azpian.

Lege aldetik, lurren gaineko tresna horrek ez du ezer eskatzen eta sei urtez eremu zehatz baten gainean lehentasunez erosteko eskubidea ezartzen du. Laster gauza daitekeelako da interesgarria, bai eta lehentasunez erosteko prozedura segurtatzen duelako. Izan ere, hirigintzako lehentasunez erosteko eskubidea erabili nahi bada, aitzinetik proiektu jakin baten gogoeta behar delarik, GAZ-

ZAD eremuetan lehentasunez erosteko orokorragoa den deliberamendua besterik ez da behar. Horrek hautatzen diren lurak zaintzapean atxikitzeke aukera ematen du eta saltze bidean badira lehentasunez erosteko eskubidea.

Bardin jaunak dio gai hori hurrengo herri biltzarraren gai-zerrendan sartuko dutela.

Hiriart-Urruty andrea Noblia txokolategiko dosierraren gaia dakar berriz, pribatu izate hori aipatuz. Herriak THP araudian ezar dezake hamar bizitegiko programa berri orotan alokairu lagunduko % 40-50 bizitegi egin behar direla.

Bardin jaunak erantzun dio ezen UC zonan, 20 bizitegitik gora, alokairu lagunduko % 40 bizitegi eskatuko dituela Herriak. Lautik sei bizitegi arteko sorkuntzatan, alokairu lagunduko bizitegi bat eskatuko da, hau da, % 28; 7tik 10 bizitegitarako, alokairu lagunduko hiru bizitegi (% 30); 11tik 14 bizitegi arte sortuz gero, alokairu lagunduko bost (% 35); 15etik 18 bitarte eraikiz gero, alokairu lagunduko sei (% 35).

Hiriart-Urruty andreak dio araudi hori alda eta erosteko bizitegi lagunduak ere eska daitezkeela, % 40 horrez gain.

Bardin jaunak erantzun dio Herriaren lurretan egin dela gogoeta hori, kanboar gazteei lurak eskura jartzeko.

Bru jaunak jakitera eman du Gassuan lursailean, Herriak bizitegi lagunduak egiteko asmoaz gain, kanboarrentzako zati zenbait uzteko asmoa ere duela. Hiriart-Urruty andreak aipatu kopuruei heldu die jarraian. Gogora ekarri du «bigarren» bizitegi deiturikoak, Kanbon, ekonomiari lotu bizitegiak direla, alegia, ur onen jardunerako sasoiko bizitegi mublaturak. Ezin dute ekonomia jardun hori ito edo guztia enpresa pribatu baten esku utzi. Bru jaunak uste du jende askori, jende maiz diru gutxikori, dirusartze osagarria eskaintzen diela horrek, uren sasoian ur onak hartzera datozenei estudioak alokatuz. Ohartarazi du Kanbon ez daudela itsas ertzean dauden bigarren bizitegi guztiak. Badira batzuk, bai, baina kostaldean baino askoz gutxiago, baina bigarren bizitegitzat hartzen direla bizitegi nagusi ez diren guztiak eta hor Kanbo aberasten eta lana sortzen laguntzen duten sasoiko mublaturak ere sarturik direla.

Herriak ez du lotegi hiri izan nahi ere. Laborantza lur diren bi lursail antolatu nahi ditu, bai, Kanbon enpresak koka daitezzen, ezin dituelako hiri barnean koka. Herriaren kanpoaldean sortu behar dira industria eremu horiek eta berak ez du beste aukerarik ikusten. Horrela kamioiek ez dute herria zeharkatu behar eta, normala da, gainera, enpresak departamendu errepideetatik hurbil izan nahi izatea.

Lehena Mulieniako lursaila da; laborari bati aldi baterako alokatua da, baina ez da haren ustiapenaren egoitza. Bigarrena Salagoiti lursaila da; Herriak bitan banatu du hasierako proiektua eta erdia, 3ha baino gehiago, laborantza zona gisa eman du, nahiz eta egungo THPan 2Auy den, baina, bestalde, gehiengo duen taldeak uste du Kanbok lotegi hiri izanen ez bada, ekonomia jardunetarako lurak behar dituela ere.

Elkartasun lurren bulegoa dela eta, Bru jaunak erran du hauteskunde kanpainan horren alde mintzatu zela eta sortu berri dutela eta tokiko lurren erakunde publikoaren esku utzi dutela. Horren eragina oraindik ez da ikusi; ez da panazea bat, baina erosketetan lurren prezioak duen pisua arindu dezake, batzuetan, eta jendeei apartamenduak edo lur zatiak edo etxeak erosteko aukera eman.

Bru jaunak uste du ezen, eraikigarri diren U zonak % 6a inguru murriztu dutelarik, THP zahar baten aitzinean dela herria; bi planoei so egin eta alde ez da erraz ikusten. Horrek erran nahi du Kanbok ez duela, beste herriek egin duten bezala, hiritartzea masiboki bultzatzen. Oso bestela,

Kanbok eraikigarri diren % 6 zona gutxiago ukanen du datorren THPan orain artekoan baino. Kanboko Herriak ez du handizki hedatzeko asmorik.

Etorkizuneko hiritartzeetan, Kanbon, 1AU eta 2AU zonei dagokionean, % 50 gutxiago dago; laborantza lurretan, % 10 gehiago eta natura zonak, berriz, % 5 gutxiago, laborantza lur izatera pasatu baitira.

Horrek erakusten digu ezin dela erran etorkizuneko THPan laborantza lurak masiboki murrizten direla; alderantziz ere da. Aipatu du Kanboren erdian bertan badela laborari gazte batek daraman laborantza ustialeku bat. Lanean jarrai dezan utzi behar zaio eta lur horiek ez dira, inondik ere, eraikigarri bihurtuko, laborantzarako utzi behar da leku hori. Egunen batean, lur horiek, etxegileen eskuetara heldu ordez, kolektibitatearen eskuetara helduko direla espero du, ororentzako jardunetarako izan daitezen.

Guztia kritika daiteke, noski, baina Bru jaunari iruditzen zaio THP hori, oro har, egungo THPa baino kontserbatzaileago dela; lur eraikigarrien hektarea kopurua murrizten du, laborantza lurren eremua zertxobait emendatzen du eta 1AU edo 2AU zonak gutxitzen ditu. Kolektibitateak ez du hirigintza dokumentua hiritartzerantz lerratzen. Badira, batez ere Kanbo Beherean, Luroa gibelean, ordoki ziren sektoreak, ordoki-ordoki ziren lursailak, orain arte 2AU zona eraikigarrian zirenak eta orain laborantza lur bihurtu ditugunak. Ezin da, oro har, erran Bardin jaunak ederki aurkeztu duen THP proiektu honekin hiritartze bidean lerratzen garenik batere, lurrei eraikigarritasuna eransten diegunik; alderantziz da, Kanbon lehengo dokumentuan baino gutxiago eraiki daiteke oraingo THP berrian. Aldea hamar, hogeit hamar helduakoa besterik ez bada ere, Herriak lurretan gelditze keinu bat egin du eta lurak eraikigarri bihurtu genitzan eskatu dutenei ezetz erran zaie. Herriak eskaerei buru egiten jakin du.

Bardin jaunak hutsik dauden bizitegien gaineko azalpen bat eman du. Kopuru horretan salgai direnak sarturik dira. Xumienea azpian 2Auy sailkaturik dauden lurrei dagokienez, berriz, azaldu du Herriak Tokiko Lurren Erakunde Publikoari laguntza eskatzeko asmoa duela, lur horiek erosi eta GAZ-ZAD hori sortzeko.

Hiriart-Urruty andrea oroitzen da, lur hori dela eta, garai batean negoziatio txiki bat izan zela jabeekin, Errobi Herri Elkargoari prezio ezin hobean saltzekotan baitziren, betiere lurra eraikigarri bilakatuz gero. Oraindik ere hala ote den galdetu du.

Bardin jaunak erantzun dio lursail hori balioztatuko dela.

Bru jaunak zuzenago erantzun dio Hiriart-Urruty andrearen galderari, baietz erranez. Herriak erosteko prezio bat proposatu dio Errobi Herri Elkargoari. Zoritxarrez, elkargoak ez du proposamena onartu. Ez onartzeko elkargoak eman duen arrazoia elkargoak oraindik Larresoroko Pelenborda proiektua zuela da. Ofizialeentzako zati txiki guztiak saldurik dira, baina ez da hala bizpahiru zati handien kasuan. Errobi Herri Elkargoak ez du Kanboren proposamena onartu; berari pena ematen dio horrek, elkargo batek etorkizunari osotasunean so egin behar diola iruditzen baitzaio eta lurren erreserba, ekonomirako ere, oso-oso garrantzitsua da, oso zaila baita lurak atzematen.

Bru jauna arduratu da Alkiren dosieraz eta enpresa hori Pelenborda ikustera ekar zezan eskatu zion Larresoroko auzapezari, baina ez du proposamena onartu. Horregatik proposatu zaio Kanboko Mulieniako lursaila. Herri Elkargoak, aitzakia hartuz oraindik bazirela bete gabeko bizpahiru lursail, ez dio segida eman nahi izan, horretarako diruak bazituen ere; domatia da. Bardin jaunak proposatzen duen eta berak baino lehen gehiengoa duen taldeko kide zenbaitek proposatu zuten ideia Euskal Hirigune Elkargoarengana eta Tokiko Lurren Erakunde

Publikoarengana jotzea da. Azken erakunde horri errazago zaio, Euskal Elkargoa gibelean duelarik, jabearekin negoziatzea Kanboko hautetsiekin negoziatzea baino.

Bru jaunari ongi iruditzen zaio lursail hori GAZ-ZAD bihurtzea eta, hartara, ulertaraztea erabakia botere publikoen esku behar dela jabearen esku baino gehiago.

Hiriart-Urruty andreak aipatu du eraikigarri ziren lurrak laborantza lur bihurtu direla, baina lur horiek, hasieran, laborariak lantzen zituzten jadanik. Hazparneko irteeran ekonomia zonan ziren lurrak bezala, laborari batek lantzen ditu jadanik. Lehen zuten funtziora itzultzen dira.

Bru jaunak erran dio ez duela kontuan hartzen lur horiek noiznahi mehatxupean erortzeko arriskuan zirela. Izenik eman gabe, demagun jabeak bihotzekoa jasaten duela eta ezin duela lanean jarraitu; laborantza lurra laborantza lur da hala sailkatua bada. 2AU zonan bada, Kanbo erdian hiruzpalau hektarearen jabe den norbaitek osasun arazoren bat badu, bai eta, hiltzen bada, haren emazteak edo ondokoek, etxegile baten xerka joanen dira. Herriak lur horiek laborantzarako direla bermatzen du laborantza lur gisa sailkatuz.

Hiriart-Urruty andreak dio berak ez duela Sallagoity-Colbert senar-emazteak beste izenik aipatu. Gaineratu du azken lursail horietan eraikiko diren eraikinek Kanboren sarbidea itsustuko dutela; bere taldeak ez du Kanboko sarbidea Itsasukoa bezala nahi. Eman zaizkion dokumentuetan agi agertzen da herria hegoaldera hedatzeko asmoa, Itsasuko herriarekin jarraian hedatzeko, baina nondik nahi hori? Bere taldeak ez du halakorik nahi, Itsasuko sarbidea itsusi-itsusia da eta «gauza bera egin nahi duzue Kanbon».

Bardin jaunak espero du eta badaki ere, Kanboko sarbidearekin ez dela berdin gertatuko. Lursail horretan, eraikigarri den eremua murriztea aurreikusi dute; naturagune bat sortu dute, THP zaharrea ez zegoena, bai eta gune babestu bat errepidearen luzeran, berdegune bat sortzeko eta Kanboko sarbidea ez itsusteko.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio laborantza jarduna bukatua izanen dela leku horretan. Ez da gehiago behi edo ardirik izanen hor eta bere taldeak ezin du hori onartu.

Bardin jaunak erran du orain dela zenbait urte, orain kanboar anitz bizi den lekuan, hiri baretik ez oso urrun, UC zonan, larreak zeudela, ahuntzak eta ardiak, eta egun bizitegiak ditugula, jendeak heldu direlako, bera ere tarte, herritarrek haurrak egin dituzte eta haur horiek Kanbon bizi nahi dute. Biztanleria handitzen ari da eta, noiz edo noiz, horretarako lurrak atzeman behar dira.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio noiz edo noiz zernahi egin dela. Herriak lurrak amaigabeko iturria bailiran jan ditu.

Aiçaguerre andreak erran du noiz edo noiz 1 700 m² behar zituztela eraikitzeko eta orain, berriz, 200 m² neurtzen duen lursail batean eraiki daitekeela.

Bardin jaunak erantzun dio hori ez dela Herriaren erruz.

Hiriart-Urruty andreak dio hautetsiek erantzukizuna dutela; orain bestelako gogoeta da, lurrak zaindu behar dira. Bardin jaunak erran duenera dator, bereziki Larrondo lurretako proiektura: hogeita bost etxe; egiazki uste du kanboar gazteek eraikitzen ahalko dutela hor?

Bardin jaunak erantzun dio badakiela kanboar batek erosiko duela hor.

Hiriart-Urruty andreak dio lursail txikiak direla, 500-600 m² besterik ez; zein preziotan? 100 000 €? 120 000 €?

Bru jaunak dio kanboar anitzek erosi dutela Pons andrearen lursailen sustapenean. Ezin da orokortu, halere.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea zergatik erosi duten kanboarrek. Apartamendu gehienak T1 dira, hau da, ur onetara datozenei alokatzeko. Ez dira bertan bizitzeko.

Bru jaunak erantzun dio erretreta zain diren bitartean alokatzeko erosten dituztela jendeek. Bada denetarik. Uste du Sallagoity-Colbert lursailean Herriak zona zabal bat emanez babestu duela herrirako sarbidea, errepidearen eta etxeen arteko tarte ona utziko baita horrela. Azantzabordako lurren jarraian eta orain dela urte gutxi batzu zatika antolatu den auzo hori guztiarekin loturik. Hedatze alde bat da, bai; Hiriart-Urruty andreak lurra zaindu beharreko ondasun garrantzitsua dela dio eta bera horrekin guztiz bat dator, baina gogora ekarri nahi luke, halere, hainbatetan erran dena, alegia, THP honi ezin zaiola, oro har, laborantza eta natura lurak masiboki murrizteko asmoa duenik egotzi, oso bestela baita. Oro har, ezin da erran THP berriak lur sobera xahutzen duenik; oso bestela da, hiri lurak murrizten ditu eta laborantza eta natura lurak zertxobait emendatzen ditu. Bardin jaunak erran duen bezala, lursail handiak behar ditugu Herriak alokatzeko bizitegi lagunduak egin nahi baditu. Hori ezinen da herri barnean egin, salbu Herriak Azantza etxea erosi eta Tillac andrearen lursailean egin ahal izan duen alokairu lagunduko hogeita hamaika bizitegiko operazioa.

Auzapez andrea ez da aretoan, baina Bru jaunak uste du gehiengoaren duen taldeak bizitegi lagunduak egin nahi dituela Bodart hiribideko lursailean, Santa Maria eskola zen lekuan, hiri barnearen erdi-erdian.

Bru jaunak uste du behar diren alokatzeko bizitegi lagunduak lur berrietan egin behar direla, sustapen berrien bidez eta lursail handixkotan. Eraikitze lursailen azaleraren gaiari heldu dio berriz eta zehaztu du saneamendu kolektiborik ez zenean bazela norbanakoen saneamendua eta horretarako lur eremu aski izatea eskatzen zen. Besteak beste, horregatik eskatzen zen, lehen, gutxienez 1 500 edo 2 000 m² neurtuko zituen lursaila. Egun, horrek ez du jadanik zentzurik, lurren % 95ak saneamendu kolektiboa baitu.

Bardin jaunak erran du ezen egun, COS baldintzarik ez denez, 300 edo 400 m² besterik neurtzen ez duen lursailetan eraiki daitekeela; ez zaio ongi iruditzen.

Aiçaguerre andrea bigarren bizitegien gaira dator berriz. Kanbon, oraingoz, halako gutxi dagoela erran da, kostaldean daudela batez ere, baina itsas hegia gainezka dagoelarik, hurengo etapa Uztaritze edota Kanbo izanen dira. Legea berrikusi beharko da, beharbada, batez ere gure aldea, bigarren bizitegien gaineko zerga berezia ezartzeko. Hiri barnetik bazternera den Makeako bidean bi etxe saldu berri dira azken sei hilotan eta bigarren bizitegiak dira.

Lespade andreak erantzun dio gehienbat erretretarako erosten duten jendeak izan ohi direla uste duela, hau da, etorkizunerako erosten dutela.

Aiçaguerre andreak dio Kanbora erretretan heldu ohi direla, osasuntsu. Handik hamar bat urtetara, bi ezkontideetako bat hiltzen da; zoritzez astero ikusten ditu halakoak lanean; jende horiek negar egiten dute, jadanik ez dituztelako seme-alabak edota ilobak ikusten, beste arazo mota da hori.

Hargain-Desperies andreak dio Aïçaguerre andreak aipatu bigarren bizitegi-tako bat bere lehengusuarena dela, baina erretretan etorri omen da Kanbora.

Aïçaguerre andreak Hargain-Desperies andreak erran duena baieztatu du. Aipatu dituen bi etxeak bigarren bizitegi dira, Suitzar jendeena bat eta Lo Monteko jendeena bestea.

Bru jaunak erantzun dio gai horren gainean, Aïçaguerre andreari, berak pertsonalki, taldea bere erranetara lotu gabe, bera ez litzatekeela bigarren bizitegien gainean zerga ezartzea aztertzearen aurka, eta, behar balitz, zerga horren alde ere izan liteke, betiere nozio horren erranahia zehazki aztertu ondoren. Beharbada % 60raion heldu gabe; itsas hegian hainbat erataria jokatzen dute; Bidartek gehiena aplikatzen du eta gainerakoak %20tik 30era edo 40ra pasatu dira. Gaia ez zaio tabu Bru jaunari ta egun batean bigarren bizitegi anitz dagoela ikusiz gero, ez daki zergatik ezinen liekeen Herriak bigarren bizitegien jabeek ekarpen berezia eskatu; beharbada ez % 60 hastapenetik. Gogora ekarri du jendeek erran behar zaiela bigarren bizitegiek lana ematen diela ofizialei, gehienetan dirudun jendeak izan ohi direlako; dirua ekartzen dute, nolabait.

Aïçaguerre andreak gogora ekarri dio Bru jaunari ezen, bi hautes aldien arteko eztabaidan, kazetariak Kanbon bigarren bizitegiei zerga ezartzeari buruzko galdera egin eta behin eta berriz aipatu zionean, Bru jaunak erantzun ziola % 13-15eko zerga zegoela.

Bru jaunak barkamena eskatu dio, hala erran bazuen. Eztabaidaren beroan erranen zukeen, egiazki ez baita halakorik. Baina printzipioz, bere uste apalean, Herriak azter lezakeen zerbait da.

Bacardatz jaunak ikusi du laborantza eta natura zonak emendatzen zirela. Planoetan ikusi du auzo batzuetan badirela etxeak dituzten lur zati zenbait natura zona bihurturik. Ez dio horri interesik ikusten, ezpada biztanleak biperra ekoiztera bultzatu nahi dela.

Bardin jaunak erantzun dio zona babesteko egin dutela hori, lur horietan eraikitzea eragozteko.

Bacardatz jaunak erran du jadanik badela etxe bat lursail horretan.

Bardin jaunak erantzun dio jabeak beste etxe bat egin lezakeela ondoan, orain ez baita COC baldintzarik.

Beyrie andreak dio halako lursail txikiek ez dutela laborantza jardunerako aukerarik ematen. Zerrenda txiki batek laborantza edo natura zonen eremua handitzen du, baina ez du laborantza jardunerako aukera handitzen. Kopuruak besterik ez dira horiek, kontuekin batuketak egin daitezke.

Bardin jaunak erantzun dio lur horietan eraikitzea eragozten duela eta lur horiek ez daude laborantza zonan, natura zonan baizik.

Bacardatz jaunak erran du gehiengo duen taldeak baduela, beharbada, zerbait bere auzoaren aurka; saneamenduaren ondoren, etxeak natura zonan jarri dizkiete. Berari ez dio arazorik sortzen, ez baitu eraikitzeke batere asmorik, baina harrigarria da, halere.

Bardin jaunak baieztatu dio horregatik sartu dituztela lur horiek natura zonan. Egun eraiki baitaiteke etxe bat beraren etxearen ondoan.

Bacardatz jaunak gaineratu du bere etxe aitzinean bizi denak ezin duela eraiki; ez du, halere, xehetasunetan sartu nahi.

Bru jaunak, berriz, xehetasunetan sartu nahi du eta pozgarri izan zaio entzutea Bacardatz jaunak onartzen duela lur horiek ez daudela laborantza zonan, Beyrie andreak erran duen moduan, baizik eta natura zonan; Herriak ez ditu laborantza lurak emendatu, Beyrie andreak diotenaren oso bestela. Horrek erran nahi du etxe batek 1 500 m² lur baditu eta lur horiek U zonan badaude, jabeak bizpahiru zatitan bana dezakeela lursaila, jadanik ez baita COS baldintzarik. Hartara, lursail berean dauden eraikinen ondoan eraiki daiteke; hala gertatu da Angelun.

Bru jaunak argitu du bere etxe inguruan hiru etxetxo egin zitzakeela, baina ez duela halakorik egin nahi; berdegune babestua eman du bere lursailean eredu izateko eta bere ondokoek ez dezaten egun batean halakorik egin, ez baitu Nafarroako etorbidea, Kanborako sarbide ere dena, inork itsustu dezan nahi.

Bacardatz jaunaren adibidera etorritz, norbaitek 1 500 m² neurtzen duen lursaila badu, bi etxetxo gehiago egin litzazke. Herriak hiri jarraitasunik ez dela erabakitzen duenean, etxe horiek bazter dira eta natura zonan sartzen dituzte, lursailen banaketa hori eragozteko, eraikigarritasunaren bidean aitzin egitea balilitzateke.

Bacardatz jaunak galdetu du ea jendeei azalduko ote zaien eskuineko auzoaren lursaila natura zonara pasatu dutela eta ezkerrekoa, berriz, zona sailkatuan utzi dutela. Pertsona hori eraikitzen ari da eta, hartara, bere lursailean eraikin bat eman dezake. Bakarkako etxea izan behar zuenaren ordez, lau bizitegi egiten ari da. Izan ere, bakoitzari gauza bat egitea da hori.

Bru jaunak erantzun dio zonaketa leku batean has eta bestean bukatu beharra dago. Horrek natura zonak emendatzen ditu, baina ez laborantza zonak.

Beyrie andreak ados dela dio eta gaizki azaldu duela. Une batean, kopuruekin, batuketekin, emaitzak agertu dira. Ez ote da hobe etxeak jadanik eraikinak dituzten lekuetan ematen uztea egun hutsik diren edo laborantzarako baliagarri diren lursailak erabiltzea baino.

Bru jaunak erantzun dio hori beste gaia dela. Gehiengoa duen taldeak ez du horrela uste eta SRU legearen logikatik babestu behar da Kanbo. Kanbok ez du zerikusirik Angelurekin, hiri barnean gero eta gehiago eraikitzen duten herriekin, lege horrek nahi duen bezala.

Bere taldeak hiri barneko paisaiaren kalitatea zaindu behar dela uste du, bizitza kalitatea; horixe egozten diote jabe batzuek, jabeen eskubideen aurkako erasoan ari direlakoan; hiri barnera daramaten etorbide nagusiak babestu nahi ditu. Bere taldeak ez du nahi X, Y edo Z jabegoak zati txikitari banatuak izan daitezen edo bizitegi eraikin kolektiboak eraiki daitezen haietan. Etorkizuneko belaunaldiei utzi nahi dizkie Nafarroako etorbidea, Anne de Neubourg etorbidea, Rostand hiribidea eta Espainiako etorbidea bereziki, ur hiriaren ideien bidetik, parke hiri edo lorategi hiriaren ideiarekin jarraituz, eta ez zernahi egiten utzi. Ez da hori hedatzen utzi behar. Gehiengoa duen taldeak Kanboren erdigunea babestu nahi du, herriaren arima atxikitzeke eta ez barneko txoko guztiak bete, Beyrie andreak dioten bezala eta RSU legearen logika ere den bezala, hiri ez hedatzeko. Baina Bru jauna erakusten saiatzen ari den bezala, lortu ez arren, Kanbok ez ditu hiritartzeko lur berriak irekitzen; hiritartzea mugatzen saiatzen da.

Hiriart-Urruty andreak gogora ekarri du Sallagoity-Colbert lurak AU zonan zeudela jadanik, laborari batek lantzen bazituen ere. Lur horiek betoiztatu eta U zonara pasako dira; laborantza lurren funtzioa galduko dute. Egiazki, lur horiek ez zeuden hiritarturik; laborari batek ustiatzen ditu hiru hektarea horiek.

Bru jaunak zehaztu du ezkerretara, Kanboko irteeran dauden lurretaz ari dela Hiriart-Urruty andrea, eskuinaldean ekonomia jardunetarako lurak xerkatu behar baitira.

Bardin jaunak erran du herriko etxearen ondo-ondoan, frontoiaren aitzinean, Tillac lursailean, artoa dagoela.

Beyrie andreak galdetu du ea alokatzeko bizitegi lagunduen % 40eko kopuru hori proposatzen duten gutxieneko kopurua ote den. Kanbok % 60 edo 70 egitea erabaki lezake. Gehiengoa duen taldearen hautu politikoa da alokairu lagunduko % 40 bizitegi egitea.

Bardin jaunak erantzun dio une batean gauzaren egingarritasuna ere hartu behar dela kontuan. Bere taldeak, Gassuan lurretan, alokairu lagunduko % 100 bizitegi egitea pentsatu zuen, baina hori ghetto bat egitea litzateke.

Beyrie andreak eskertu dio eta zehaztu dio ere bizitegi lagundua eska lezaketenen artean dagoela bera eta ghettoa ez litzatekeela, agian, hain lazgarri.

Bardin jaunak erantzun dio Uztaritzeko Herriak hori egin nahi zuela, baina Estatuak proiektua errefusatu diola.

Magis jaunak dio legearen arabera kolektibitatearen THPak ezin duela alokairu lagunduko % 100 bizitegi ezarri. Aldiz, etxegileek nahi badute, kolektibitateak onar dezake, baina printzipioa gizartearen mistotasuna da. Herrian, % 40eko atalasea alokairu lagunduko bizitegietan dugun beranta konpontzen laguntzeko ezarri da, baina Bardin jaunak dioen bezala, garrantzitsuena ekonomia egoera da. Ondasunaren erostearen eta eraikitzearen arteko oreka behar da. Alokairu lagunduko %40 bizitegien kopurua ongi da eta herri gutxi du % 50a.

Bardin jaunaren azalpena entzun eta eztabaida egin ondoren, Herri Biltzarrak Tokiko Hirigintza Planaren proiektua onartzea erabaki du; azken erabakia Euskal Hirigune Elkargoak du eta, hartara, Herri Biltzarrak dosierra Euskal Elkargoari igortzea erabaki du ere, hark erabaki dezan. Deliberamendua herriko etxean hilabetez afixaturik izanen da eta Euskal Hirigune Elkargoari jakinaraziko zaio.

Herri Biltzarrak iritzia emanen du, beraz, THP proiektu hau bali egiteko.

Lespade andreak dio onartuko duela THP hau, baina arrats honetan erran den gauza anitzekin guztiz bat datorrela. Hartara, apalagotik pikatuko du erne baino erneago begiratu behrko diren lursail horiei dagokionean, hala alde batetik nola bestetik, datozen proiektuetarako.

Bardin jaunak erantzun dio bera ere erne baino erneago izanen dela. Kolektibitateak arreta handia jarriko du Itsasuko sarbidean egin dena ez errepikatzeko.

Beyrie andreak ez du Lespade andreak erran duena ulertzen. Nola izan daiteke erne behin lursaila eraikigarri denean, nola egin daiteke ezer gero?

Lespade andreak erantzun dio Herriak baduela eraikiko dena kontrolatzeko ahala. Kolektibitateak errefusatu ditu, batzuetan, eraikuntzak. Kanbori dagokionean, agintaldia bururatu arte izan behar da erne. Bere ustez, Uztaritzeko Herria erne izan balitz orain dela zenbait urte, gertatu zaiena ez zitzaiela gertatuko.

Bardin jaunak gaineratu du agintean den taldeak ez duela lursail horietan zernahi egiten uzteko asmorik. Etxegile baten proiektua ez bada Herriaren gustukoa, ez zaio onartuko eta Herriak nahi lukeena azalduko dio. Etxegileek Herriari kasu egin ohi diote, harekin lanean segitu nahi dutelarik. Etxegilearen, hirigintza zerbitzuaren eta hirigintzaren ardura duten hautetsien artean elkar adituz aritu ohi dira.

Hiriart-Urruty andreari atsegin zaio hori entzutea, orain arte, proiektu pribatu orotan, gehiengoan den taldeak «pribatua da, ezin dugu ezer egin» erran izan baitu. Horren adibiderako, oraindik bururatu ez den azken proiektua aipatu du, Pons lursailekoa; Herriak T1en ordez T2, T3, T4 gehiago egin zitzazketela eska zezakeen, adibidez.

Bru jaunak erran du Bardin jaunarekin batera T3, T4 bai eta T5 gehiago eskatu dituztela, baina diputatu gisa, guztiz kontrakoa entzuten duela. Egungo eskaria T2 eta T3ak baitira. Herria ez da T1ekin fidatzen, horrelako bizitegiekin esperientzia ez oso onak ukan ditugulako Kanbo Beherean. T1 horietan bizi direnak oso-oso denbora laburrez geratu ohi dira. Aldiz, kopuru guztietan agertzen da hori, apartamendu txikien eskari handia dago gaur egun.

Beyrie andreak gaineratu du arrazoi praktikoengatik dela horrela. Jendeek T4 bat eskuratzeko dirurik ez badute, T2 batekin moldatzen dira; ez du erran nahi hautu bat denik.

Bardin jaunak erantzun dio ez dela diru kontua, ezpada jendeen eskaria hala dela, maiz banandurik eta haur batekin topatzen diren jendeak direlako batzuetan; erretretan den norbaitek ez du beti T2 baten beharra.

Bizitegi lagunduei dagokienean, gehiengoa duen taldeak T3 eta T4 gehiago behar zirela uste zuen. Hori onartu baino lehen, bizitegi lagunduen eskarien zerrenda ikus eta konturatu dira T2 eta T3 zirela gehien eskatzen ziren bizitegiak, batez ere T2ak.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Gehiengoz onetsia.

Aurka bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty andreak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andreak, Amaia Beyrie andreak.

Goytino jaunak THP horri buruz mintzatzeko hartu du hitza, «alde» bozkatu badu ere, beste zenbaitek bezala. Lana eta eztabaida gogotik egin direla aipatu nahi du. Eztabaida sakona izan da, gogorra ere batzuetan, eta guztiak ez ziren proiektu osoaren gainean ados. Proiektuaren % 95aren «alde» bozkatu du berak. Gaur egun, Kanbo, Euskal Herria oro har ere bezala, lurralde oso-oso erakargarria da; han-hemenka, nonahi ikus daitezke kostaldean gertatzen ari diren biztanleriaren bilakaerak; aldaketa horiek Kanboraino helduko dira gero eta gehiago. Uste du gure lurralderako hobetze asmoa ukan dezakegula eta asmo hori ez dela soilik bizitegiak eskaintzea. Gazteei lanpostuak eskaintzeko asmoa ere ukan genezake eta ez Euskal Elkargoak hartu bideari nahitaez jarraitu, hau da, industria eta ekonomia kostaldean kokatu eta kostalde ondoko barnealdean, hau da, Kanbon, ez halakorik baimentzeko bidetik joatea. THP honetan badira lursail batzuk, bereziki Kanbotik Itsasurako irteeran direnak, gehiengoa duen taldearen

asmo handiagoak eskatzen zutenak. Bizitegiak eginen dituzte hor, bai, baina lur horietako zati bat ekonomia jardunetarako atxiki genezakeen jadanik. Hasiera batean, negoziazio zenbait izan zen jabe batekin, baina gehiengoa duen taldeak bere proposamenetan gibelka egin duela dirudi, Euskal Elkargoak ez baitu horretan jarraitu. Egun, beste bide batetik lor genezake, agian, Herriak hastapenean nahi zuen hori. Kolektibitatearen ilaunkeria hori deitoragarri zaio, lur horietan asmo handiagoa erakutsi ez izana. Haratago joanez, deitoratzen du ere Kanboko sarbidean ingurumenaren aurkako eta AGIP-PADD dokumentuak azpimarratzen zuen paisaia ederraren arkitekturaren aurkako erasoa. Ez gaitezen engaina, egun eraikirik diren beste leku batzuk ere txoko ederrak ziren lehen. Batzuei bizitegia eskaini diete, hemen garen guztioi segur. Orain, gauzak zein erritmotan eginen ditugun behar dugu jakin. Euskal Herrirako eskari handiak presatzen gaitu, bai, baina jende anitzek nahi duen lurraldea dugu eta asmo handia behar dugu ukan eta urratsez urrats aritu, nolabait ere, eta gure etorkizunaren jabe izan.

Etchelecu jaunak Goytino jaunaren hitzak osatu ditu. Georges Marchais-ek zioen, sobietarrek Afghanistan-en egin zutena, oro har ona zela. Berak ere, THP honen alde bozkatu du, oro har on delako eta ezin dugulako gure boza zonaketa bakoitzaren arabera edota proiektuaren xehetasunen arabera banatu. Azkenik, egoera berezixkotan gara eta gehiengoa duen taldeari guztiz leial mantendu nahi du. Hala ere, Itsasutik Kanborako sarbidean dauden lursailen gainean agertu diren arazoak, kezkak, beldurrak, berak ere baditu eta kontraesanean ikusten ditu, oro har, THPak hasiera batean azaldu dituen helburuekin eta, zifra orokorretan, helburu horiek lortzearekin; AGIP-PADD dokumentua, laborantza lurren emendatzea, sormarka babesleak bultzatzea, hiritartzea mugatzea. Oro har, helburu horiek lortu dira, baina hor bada horrekin kontresanean den lursail bat, zeren hor bada artzain bat, Herriak ongi ezagutzen duen artzain bat, Agur enpresarentzat esnea ekoizten baitu, eta Herriak ez dio utziko hiru hektarea lur ustiatzen, jakinik lur gabeko artzain seme dela, aitaren segida hartu duen gaztea; heldu diren hamar urteotan erretreta hartuko duten artzainen % 60ak ez du segida emailerik ; deitoragarri zaio hori. Gehiengoa duen taldeak aipatu du horren aitzinean den lursailaren gainean, Marienia aldean, GAZ-ZAD izendapena ezartzea aztertzeko asmoa. Berak GAZ-ZAD hori beste lursail horretara ere heda dezaten nahiko luke, hobeki kontrolatzeko eta jabe berarekin negoziatzeko ekonomia jardunerako zona bat bederen ukaitea, hasiera batean hala lortu baikeuen, baina Herriak, azkenik, aukera hori galtzera utzi du Herri Elkargoak ez zuela bat egin. Horiexek aipatu nahi zituen berak.

Dor jauna bat dator Goytino jaunak eta Etchelecu jaunak erran dutenarekin. Eztabaidetan hainbat elementu agertu da eta Kanboko irteerako lursailari buruz erran den zenbait gauzarekin bat dator bera ere. Erne izatea oso garrantzitsua da. GAZ-ZAD zona horren gaia sortu da hirigintza laguntzeko EPFL erakundeak eskaintzen dituen aukerak ezagutu ondoren. Etchelecu jaunarekin bat dator. GAZ-ZAD sailkatzea soilik Marienia azpian den 2AU lursailaren gainean egitea ez zaio aski iruditzen. Jakinez GAZ-ZAD sailkapenak proiektuak neurri batean begiratzeko aukera ematen duela, bi lursailentara hedatzu beharko litzateke sailkapen hori. Paisaiaren gaineko eragina hor da beti, nahiz eta ezarri den natura zerrendak babes zerbait ematen dion; bada zerbait zerrenda hori, baina ez da, halere, aski. Lursailaren hiritartzeaz ere badu kezka zerbait; auzo hori oso hiritartua izan da jadanik; halaxe gertatuko zaio bidean den Larrondo proiektuaren ondorioz Sallagoity-Colbert senar-emazteen lurretan sortzekotan den proiektuak handizki emendatuko du horko biztanleria eta, horrekin batera, hornikuntzen eta bestelako beharrak. Galderak ditu horiek, baina badaki ezin dela bizitegien beharren aurka joan; bada behar hori, bai. Horregatik bozkatu du THP horren alde, baina berak ere baditu biltzarkideek azaldu dituzten kezkak; taldearen barnean gutxiengoaren kezkak badira ere, Herri Biltzarrean azaldu behar direla uste du.

Bardin jaunak THPa berrikusteko dosierraren jarraipenaren egutegia azaldu du. Herri Biltzarrak aldeko iritzia eman du gaur; abenduaren 16an, THP proiektua Euskal Elkargoaren Kontseiluak erabaki beharko luke. Gero, Euskal Hirigune Elkargoak horri loturik diren pertsona publikoei eta erakundeei igorriko dizkie dokumentuak. Dokumentu horiek hiru hilabetez aztertuko dituzte erakunde horiek eta beren iritzia eman eta Herriari jakinaraziko diote. Herriak hilabete ukanen du egin zaizkion oharrei erantzuteko, eta gero, hilabete iraunen duen herri galdeketa egingen da. Galdeketa ondoan, publikoak erran duena eta txostenak aurkeztu eta aldaketak eta zuzenketak kontuan hartuko dira, beste hilabete batez. Gero THPa onartzea etorriko da, legezotasun kontrolerako igorriko da eta afixatuko da, gero, hilabete bat edo biz. Guztia ongi badoa, berrikuspena 2018ko urrian bururatuko da.

8 – Bordart etorbidea: lursailak Herriari eman eta jabari publikoaren esku uztea.

Magis jaunak azaldu du egungo THPak aurreikusten duela bide horren zabaltzea; hartara, Herriak Ilona sozietate zibilarengana jo du, zehazki haren ordezkari den Guy Aldasoro jaunarengana, eta eskatu dio euro sinboliko baten ordainetan eman diezazkigun kadastran AV 254, 258, 261 sailkaturik diren lursailak, bidea zabal dezagun. Aldasoro jaunak aldeko iritzia eman dio euro sinboliko batez lur horiek emateari. Lursail horiek jabari publikoan sailkatzeko herri galdeketa egin behar da.

Herri Biltzarrari eskatu zaio operazio horren printzipioari buruzko iritzia eman dezan eta delibera dezan lursailak euro sinboliko baten ordainetan erosi eta jabari publikora ekartzeko printzipioari buruz; horri dagokion herri galdeketa abian eman dezan eta auzapez andreak operazio horrek eskatzen dituen egiteko guztiak egiteko baimena eman diezaion. Zehaztu du administrazio akta eta herri galdeketa gastuak Herriaren gain direla.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea Herriak halako proiektu baterako baimena eman eta ikusten badu bidea meharregia dela aurreikusia den bizitegi kopururako, ezin ote dion etxegileari eskatu gastuak bere kargura har ditzan.

Magis jaunak galdetu dio ea zein gastutaz ari den.

Aiçaguerre andreak akten gastuetaz ari da eta galdetu du ere ea nork ordainduko dituen bidea egiteko gastuak, errepidea berregin beharko baita.

Magis jaunak erantzun dio bide hori ez dela etxe multzo horretarako soilik.

Aiçaguerre andreak gaineratu du lanengatik izan dela errepide hori «funditua».

Magis jaunak erantzun dio bide publikoa dela. Gai hau bidea ororen onerako zabaltzeari dagokio eta sozietateak euro sinboliko baten ordainetan ematen ditu lurrak. Erran ziezagukeen lurrak erosi prezioan salduko zizkigula.

Aiçaguerre andreak dio Herriak erran ziezaiokeela Aldasoro jaunari ezen, egiten dituzten bizitegi guztiekin hor trafiko handia ibiliko dela, bidea meharregi gertatuko zela eta baimena ematerakoan zehazt zezaketen hori.

Magis jaunak erantzun dio legetan sartzen dela lurra erostea.

Aiçaguerre andreak galdetu dio ea lau zuhaitzak botako dituzten; bada, bereziki, eukalipto bat, Euskal Herrian oso arraro den zuhaitza. Deitoragarri zaio halako zuhaitzak bota beharra.

Magis jaunak erantzun dio proiektuaren barnean aztertuko dutela hori. Zuhaitza proiektuaren barnean bada, seguruenik bota beharko da.

Bacardatz jaunak galdetu du ea bidearen zabaltzea Anne de Neubourg hiribideraino helduko den.

Magis jaunak erantzun dio THPak erreserbapeko leku bat aurreikusten duela, Anne de Neubourg etorbidearen luzera osoan; Durruty etxearen lurretan jarraituko da, beraz. Argitu du zabaltze hori lur saltze bat izan delako egin dezaketela, baina etorkizunean, Herriak bideak zabaldu nahi eta horretarako behar dituen lur guztiak ez baditu, desjabetze prozedura erabili beharko du eta, horretarako, onura publikoaren adierazpena egin beharko du. Hemen ez gara egoera horretan.

Bacardatz jaunak dio eraikinak bururatu eta emanak izanen direnean, errepidea ez dela oraino zabaldua izanen.

Magis jaunak erantzun dio ezinezkoa izanen dela berehala egitea, ezin baitute bidea soilik zati horretan zabaldu. Aldiz, Herria etorkizunean egin ahal izateko behar diren lurak erosten ari da.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

9 – Ehaitiarenea bidea: Herribide sailkatua izatetik ken eta baserribide gisa sailkatzea.

Magis jaunak argitu du bide hori Ezpeletarako errepideko kanpalekuaren gibelean dela. 59 zenbakidun herribide horrek laborantza lurretara besterik ez darama eta iruditu zaigu hobe litzatekeela baserribide gisa sailkatzea. Gogora ekarri du herribideak Herriak zaindu behar dituela. Honako hau zaindu baino gehiago beharko litzateke egin, bidea ibilgailuetarako egokitzeko. Ez ditugu milaka euro gastatuko laborantza lurretara doazen bideetan. Hartara, bide hori herribideetatik ken eta baserribide izendatzea da.

Errepideen L.142-3 artikulua dio herribideen sailkatzea eta sailkapena kentzea herri galdeketa gabe egin daitezkeela, salbu horrek kalte ekartzen badie bide horiek egiten dituzten zerbitzu emate edo zirkulatze funtzioei. Bide honekin ez da halakorik, laborantza lurretara besterik ez baitarama.

Herri Biltzarrari galde egin zaio erabaki dezan 59. zenbakidun herribide horren sailkapena ken eta baserribideetan sailkatzea, bai eta baimena eman diezaion auzapez andreaki prozedura hori bururatzeko behar diren urraspide guztiak eta egiteko guztiak egin ditzan. Bide hori Ehaitiarenea bidea deituko da.

Aizpuru andreak argitu du lur horietan badela etxe bat.

Magis jaunak erantzun dio bide horrek orain hetsirik den eraikin batera daramala. Jabeak exe hori saldu eta zaharberritu nahiko balu eta Herriari horretarako bidea egin dezan

eskatuko balitzaio, berrehun metro luze beharko genituzke Herriak hiritartu eta, horretarako, gastu handiko inbestimendua egin beharko genuke. Herriak ez du bere bideak zaintzeko diru handirik eta zailagoa zaio oraindik beste bideetan gastatzea.

Magis jaunaren ustez, bidea baserribide izanik, jabeak bere etxea antola edo zaharberritu nahiko balu, THPak hori egiten utziz gero, bidea haren esku utzi beharko genuke eta hari litzateke bidea egitea.

Aizpuru andrea berriz dator Magis jaunaren hitzetara, bide horrek laborantza lurretara besterik ez daramala dioenean. Berari iruditzen zaio bizitegi bat dagoen lekua ez dela laborantza lur hutsa.

Hiriart-Urruty andreari harrigarri zaio bide puska txiki horrekin horrenbeste tematzea. Kanbo osoan izanen dira, segur, halako beste anitz ere.

Magis jaunak balitekeela erantzun dio, zuzendu beharreko bitxikerietako bat da.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Gehiengoak alde bozkatu du.

Xehetasun guztien mentsean, Argitxu Hiriart-Urruty andreak aurka bozkatu du.

10 – Paskoeneako bidea zabaltzea: herri galdeketa ondorengo erabakia.

Magis jaunak gogora ekarri du Herriak herri galdeketa egin duela, bide zati horren zabaltzeko. Evelyne Ibarrart andrea izan zen komisario-galdegile izendatua, 2017ko irailaren 15eko agindu batez.

Kontuan hartuz legeak ezarri betebeharrak guztiak bete direla,

Kontuan hartuz bidea zati batean zabaldu behar dela,

Kontuan hartuz bidearen oinarri den lurra jabeek euro sinboliko baten ordainetan ematen dutela eta Herriak egin dituela lanak eta, bidea berrantolatu ondoren, hesia berregin duela ere,

Kontuan hartuz inork ez duela proiektuaren aurkakorik azaldu,

Kontuan hartuz komisario-galdegileak aldeko iritzia eman duela,

Herri Biltzarrari galde egiten zaio onar dezala Paskoeneako bidearen zabaltzea, horretarako lurrak jabe diren Saint Esteben jaun-andreei euro sinboliko baten ordainetan erostea eta auzapez andreari administrazio urraspide guztiak egiteko baimena ematea.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

11 – Dirulaguntza.

Dor jaunak dio Kanboko Merkatarien Batasunak laguntza eskatu diola Herriari, urtero garai berean egin duen legez, merkataritza hamabostaldia antolatzeko. Elkarateak, Ramuntxo Larramendy lehendakariaren bitartez, 1 000 euroko laguntza eskatu du, 2017ko merkataritza hamabostaldiaren animazioa muntatzen lagun diezaiegun. Aurrekontuak 4 000 euroko gastua dakar; hor sartzen dira, alde batetik haurren egunerako 2 500 € eta, beste aldetik, karraketan zenbait animazio egiteko 1 500 €.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

12 – Eссор Basque-Euskal Oldarra bizikleta lasterketa: 2018ko hitzarmena.

Irastorza jaunak gogora ekarri du urtero bezala dela, auzapez andreari baimena ematea Eссор Basque-Euskal Oldarra bizikleta lasterketaren hitzarmena sina dezan. Aurten 2018ko otsailaren 4an egingen da lasterketa. Herriak 3 500 € emanen ditu aurten, ken 2017an, otsailaren 4ko etapa bertan behera utzi ondoren aitzinatu genituen 1 000 euroak; 2 500 € emanen ditu, beraz. Argitu du aurten Kanbo lasterketaren abiapuntu eta helmuga izanen dela.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

13 – Aurrekontu nagusiaren eta saneamendu aurrekontu gehigarriaren 1. aldatze erabakiak.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak dio lehenengo aldatze erabakiak direla, hala aurrekontu nagusiaren kasuan nola saneamendukoan.

Aurrekontu nagusiaren lehen aldatze erabakia aurkeztu du; funtzionamendu atala 287 008 eurotan orekatzen da, hala dirusartze nola gastuetan.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, dirusartzeei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
013 – 6419	Langileen lansarien diru itzultzea (IJ)	46 000
70 – 70311	Hilerrietako emakidak	2 000
70 – 7062	Kultura zerbitzuen ordainsariak	96 000
70 – 70632	Aisialdi ordainsariak (igerilekurako sarrerak)	-24 000
70 – 7078	Bestelako salgaiak (besteak beste, Arnaga museoaren saltokia)	6 000
73 – 7321	Ordainezko esleipenak (Errobi)	-10 992

73 – 7337	Aparkatzeko ordainsariak (karabanen gunea)	18 000
73 – 7381	Zerga erantsia, jabetza aldaketetarako ordainsaria	56 000
74 – 74121	Baserialdeentzako Elkartasun Zuzkidura	70 000
74 – 7473	Departamenduaren dirulaguntzak	-52 000
74 – 74835	Estatua – Bizileku zergaren ordainezkoa	31 000
74 – 7488	Esleipenak eta parte hartzeak FLK-CAF / gizarte ekintza	26 000
75 – 752	Eraikinen dirusartzeak	8 000
75 – 758	Kudeaketa arrunteko zenbait emaitza	9 000
77 – 7718	Bestelako emaitza bereziak / kudeaketa operazioak	1 000
77 – 773	Aitzineko urtealdietatik ezabatu karguak	1 000
77 – 774	Dirulaguntza bereziak	4 000
OROTARA		287 008

Bru jaunak alde egin du eta ahalordea Pascale Lespade andreari utzi dio.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, gastuei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
011 – 60611	Ura eta saneamendua	20 000
011 – 60628	Metatu gabeko beste hornigaiak	5 800
011 – 60632	Hornigai txikiak	20 000
011 – 60633	Bide hornigaiak	-30 000
011 – 6065	Medaiatekaren liburuak, dvd-ak	2 000
011 – 6068	Bestelako hornigaiak (besteak beste, Arnagako saltokia)	4 000
011 – 61521	Lurrak zaintzea	21 000
011 – 615228	Beste eraikinen mantentze eta konpontze lanak	-20 000
011 – 615231	Bideen mantentze eta konpontze lanak	-11 000
011 – 615232	Sareen mantentze eta konpontze lanak	31 400
011 – 61551	Ibilgailuen mantentze lanak	21 000
011 – 61558	Beste higiezin mantentze lanak	4 000
011 – 6156	Mantentze lanak	13 000
011 – 617	Azterketa eta ikerketak	-3 000
011 – 6182	Dokumentu orokor eta teknikoak	1 000
011 – 6184	Formakuntza erakundeentzako ordainketak	1 000
011 – 6188	Bestelako hainbat gastu	18 000
011 – 6226	Lansariak	9 000
011 – 6227	Agiri eta auzi gastuak	2 000
011 – 6228	Hainbat	2 000
011 – 6231	Iragarki eta txertaketak	2 400

011 – 6232	Besta eta ospakizunak	4 000
011 – 6236	Katalogoak eta inprimakiak	3 000
011 – 6262	Telekomunikazio gastuak	6 000
011 – 6288	Kanpoko beste zerbitzuak	-8 000
011 – 63512	Lurren gaineko zerga	-1 469
011 – 63513	Tokiko beste zergak	1 800
012 – 64111	Lansarien zati nagusia	-40 000
012 – 64118	Bestelako ordainsariak	-40 000
012 – 6451	URSSAF kotizazioak	-16 000
012 – 6488	Bestelako kargak	11 000
023 – 023	Inbestimendu atalera igorria	204 000
022 – 022	Ustegabeko funtzionamendu gastuak	3 729
65 – 651	Emakiden, asmakuntza agirien, lizentzien, programa informatikoen ordainsariak...	8 473
65 – 657351	Errobi Herri Elkargoari emana (GFP) / itzulketak	16 700
65 – 6574	Elkarteentzako eta zuzenbide pribatuko beste zenbait pertsonari eman dirulaguntzak	9 175
67 – 6718	Kudeaketa operazioen gaineko beste karga bereziak	6 000
042 - 6811	Higiezin gorpuzgabe eta gorpuzdunen amortizazioetarako zuzkidura	5 000
OROTARA		287 008

Zerbitzuen zuzendari nagusiak inbestimendu atala aurkeztu du gero; 343 075 eurotan orekatzen da, hala gastu nola dirusartzeetan.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, gastuei dagokionean, honako hauek dira:

Kapitulua – Gaiak		AE 2017
13 – 1328	Transferitu ez daitezkeen hornikuntzetarako dirulaguntzak – besteak	12 000
16 – 165	Jaso diren ekarpen eta kaudimenak	1 030
16 – 1678	Bestelako mailegu eta zorrak	4 992
20 – 202	Hirigintza dokumentuak egiteko eta kadastra digitalizatzeko gastuak	-3 700
20 – 2051	Emakidak eta antzeko ordainsariak (OPEN GST programa zerbitzu teknikoentzat)	4 000
21 – 2128	Bestelako lur antolaketa eta hornikuntzak	-445 300
21 – 21316	Hilerrirako hornikuntzak	3 700
21 – 21571	Bideetarako material eta tresneria / ibilgailuak	-92 000
21 – 21578	Bideetarako bestelako material eta tresneria	67 500
21 – 2158	Bestelako material & tresneria teknikoak	10 000
21 – 2161	Artelanak eta arte gauzak	-148 000
21 – 2182	Garraiorako materiala	118 000

21 – 2183	Bulegoetarako materiala eta informatika materiala	12 000
21 – 2188	Bestelako ibilgetu gorpuzdunak	-42 093
21 – 2313	Eraikuntzak	-378 021
23 – 2315	Instalazioak, material eta tresneria teknikoak	1 064 063
23 – 2316	Artelanen eta bildumen zaharberritzea	153 000
020 – 020	Ustegabeko inbestimendu gastuak	-3 696
041 – 2315	Instalazioak, material eta tresneria teknikoak	5 600
OROTARA		343 075

Bacardatz jaunak azalpen bat eskatu du honako kapitulari buruz: 21-2128, Bestelako lur antolaketa eta hornikuntzak, – 445 300 eurokoa.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak azaldu dio bi gauza direla: kreditu gehigarriak eta gaien arteko biramenduak, hau da, faktura batzuk 21. gaian arrazoi jakin batzuegatik jarri dira; egiazki, 2313 edo 2315 artikuluetara eraman behar dira.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, dirusartzei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
021 – 021	Funtzionamendu ataletik ekarria	204 000
13 – 1321	Transferitu ezin daitezkeen hornikuntzen dirulaguntza – ESTATUA	26 038
13 – 1322	Transferitu ezin daitezkeen hornikuntzen dirulaguntza – ESKUALDEA	-4 943
13 – 1323	Transferitu ezin daitezkeen hornikuntzen dirulaguntza – 64DK	-117 461
13 – 1328	Transferitu ezin daitezkeen hornikuntzen dirulaguntza – Beste	390
13 – 1341	Baserialdeko lurraldeen hornitzeko zuzkidura (DETR) – ESTATUA	179 959
13 – 1342	Polizia isunak – 64DK	28 842
16 – 165	Jaso diren ekarpen eta kaudimenak	1 037
16 – 1678	Beste mailegu eta zorrak	12 000
024 – 024	Inbestimendu lagatzea	2 613
040 – 28031	Amortizazioa – azterketa gastuak	5 500
040 – 28051	Amortizazioa – emakidak eta antzeko ordainsariak	500
040 – 28135	Amortissement – instalazio orokorrak, hornikuntzak eta antolaketak	-360
040 – 28158	Amortizazioa – bestelako instalazioak, material eta tresneria teknikoak	-740
040 – 28182	Amortizazioa – garraiorako materiala	-4 400
040 – 28183	Amortizazioa – bulegoetarako materiala eta informatika materiala	500
040 – 28184	Amortizazioa – altzariak	2 000
040 – 28188	Amortizazioa – bestelako ibilgetze gorpuzdunak	2 000
041 – 2031	Azterketa gastuak	3 940
041 – 2033	Sartze gastuak	1 660
OROTARA		343 075

Zerbitzuen zuzendari nagusiak argitu du bilkura agirian emanen dutela Departamenduak eskola garraiorako eman dirulaguntzaren apaltzea.

Bacardatz jaunak eskertu dio zerbitzuen zuzendari nagusiari egin duen aurkezpena, baina erran du ere ongi zatekeela finantzen batzordeak ere kopuru horiek ikus eta kontsulta ahal izan balitu, dirusartze eta gastu ororen xehetasunekin, postuz postu, gutxienez dirusartzei dagokienean.

Dirusartzeen mailan, xeheki emanak dira, ez, ordea, gastuen aldea, batez ere aurten egin lanei dagozkien 1,8 milioiko atal handiari dagokionean. Azpimarratu du postu bakoitzeko gastuak bederen jakinarazten ohi direla. Bestalde, zerbitzuen zuzendari nagusiak dio elementu osagarriak bilkura agirian emanen dituztela, baina agiria baino lehenago bozkatzen dute.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio aldatze erabaki bat dela eta ez aurrekontu osagarri bat. Aldaketa gehienak egokitzapenak eta erregulazioak dira. Finantzen auzapez Devèze jaunaren kontrolpean dio ezen inbestimendu gastuen xehetasuna emanen zaiela, baina, berriz ere dio, 2315. artikuluko 1 064 063 euroko inbestimendu gastuetatik, 870 000 € artikuluen arteko biramenduak dira. Artikulu horri lotu kreditu osagarriak 195 000 € dira.

Hiriart-Urruty andreari damu zaio dossier interesgarri askoa den hau, jadanik THParen berrikuspenaren dossier lodia landu ondoren landu beharra; ez da gai zaila, baina kopuru guztiak ukan behar ditugu ongi segituko badugu. Biltzarra 19 orenetan hasi da, ia 23 orenak dira eta kopuru horiekin guztiekin zentzordatzen gaituzue; ezin zen gai hau hurrengo biltzar baterako utzi?

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio zoritzarrez ezin zela hala egin, diruzaintza publikoagatik. Gogaikarri da oso, bera bat dator horretan, baina Herri Biltzarra ez da abenduaren 11 arte bilduko, hemendik hamabost egunetara, eta berantegi zatekeen aldatze erabakia diruzaintzari jakinarazteko. Finantzen zentroak epemugak ezartzen dizkigu eta bete behar ditugu.

Bacardatz jaunak azalpen bat eskatu du funtzionamendu gastuen xehetasunei dagokienean, zehazki Ektor Basque-Euskal Oldarrarentzako dirulaguntzaren azken bi lerroei dagokienean. 1 000 euroko apaltze bat eta 2 500 euroko aitzinatze bat ageri dira hor. Herriak 2 500 € ematen ditu. Herriak aurrekontua mila eurotan apaltzen badu eta bi mila eta bostehun eurotan emendatzen, horrek 1 500 euroko gastua dakar.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu dio 2017an 2 000 euroko kopurua ezarri zela eta gero 1 000 eurotara eraman, Herriak 2018ko otsailean ordainduko dituen 3 500 euroen gaineko aitzinatze bat zelako.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Gehiengoz onetsia.

Aurka bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty andreak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andreak, Amaia Beyrie andreak.

13 – Saneamendu aurrekontu gehigarriaren 1. aldatze erabakia.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak saneamendu aurrekontu gehigarriaren 1. Aldatze erabakia aurkeztu du. Aurrekontuaren funtzionamendu atala 208 035 eurotan orekatzen da, hala dirusartze nola gastuetan.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, dirusartzei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
70 – 704	Saneamendu Kolektiboa Diruztatzeko Parte hartzea – PFAC (lehen PRE)	27 644
70 – 70611	Saneamendu kolektiboaren ordainsaria	169 675
74 – 741	Araztegi saria	10 716
OROTARA		208 035

Aldaketek eragiten dituzten postuak, gastuei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
011 – 61523	Sareen mantentze eta konpontze lanak	5 200
011 – 617	Azterketak eta ikerketak	29 700
66 – 66111	Bururatzean ordaindu interesak	400
022 – 022	Funtzionamendu gastuak	1 735
023 – 023	Inbestimendu atalera igorriak	171 000
OROTARA		208 035

Zerbitzuen zuzendari nagusiak inbestimendu atala aurkeztu du jarraian; 664 185 eurotan orekatzen da atal hau, hala dirusartze nola gastuetan.

Aldaketek eragiten dituzten postuak, dirusartzei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua – Gaiak		AE 2017
021 – 021	Funtzionamendu ataletik ekarriak	171 000
13 – 1311	Estatua eta nazio mailako erakundeak	37 100
16 – 1641	Maileguak	384 000
041 – 2031	Azterketa gastuak lanen kontuetara pasatzea	72 085
OROTARA		664 185

Aldaketek eragiten dituzten postuak, gastuei dagokienean, honako hauek dira:

Kapitulua - Gaiak		AE 2017
020 – 020	Ustegabeko inbestimendu gastuak	-50 385
20 – 2031	Azterketa gastuak	72 085

21 – 21562	Ustiatze material berezia – saneamendu zerbitzua	35 000
23 – 2315	Instalazio, material eta tresneria teknikoak	535 400
041 – 2315	Azterketa gastuak lanen kontuetara pasatzea	72 085
OROTARA		664 185

Zerbitzuen zuzendari nagusiak zehaztu du, inbestimenduak 1 400 000 eurotatik 1 935 400 eurotara pasatu direla; hortik dator 535 400 euroko aldatze erabakia. Aitizneko biltzar batean erran zuen Kanboko Herriak erabaki eta programatu zituen lanetarako ez zela Euskal Hirigune Elkargoaren kargura jarriko zen mailegurik izanen. Halxe da oraindik. 2017ko saneamendu programaren 1. Faseari Delbarre operazioa kendu zaio. 300 000 € izan ordez, 37 000 € ezarri dira, Herriak mailegurik egin beharrik ukan ez dezan.

Izan ere, Herriak BEZa ordaintzeko funtsaren bidez berreskuratzen du BEZa, eta Euskal Hirigune Elkargoak hurrengo hiruhilekoan berreskuratzen du. Ez da, beraz, eskugainekorik aitzinatu beharrik, BEZaren menez ez diren eta BEZaren ordaintze funtsaren bitartez aritzen diren herriek ez bezala. Euskal Elkargoak berreskuratzen duen BEZa 322 000 € dira. 2016an egin lanen 130 000 euroek, normalki, BEZaren ordaintze funtsak Kanboko Herriari 22 000 euro ematea ekarriko zukeen, baina Euskal Elkargoak jasoko du diru hori. Aldatze erabakian dauden materiaialerako 35 000 euroek 5 800 euroko BEZa ekarriko dute; hartara, BEZa, guztira 350 000 eurokoa da. Herria ez da maileguko 384 000 euroetara helduko, baina hara hurbiltzen da, kopuru hori lanen azken zatitik berreskuratzeko esperantza baitu; zati horretarako, Merkatu Publikoen Batzordea heldu den astea bilduko da; 2017-2018 saneamendu programari dagozkie lan horiek.

Bacardatz jaunak dio saneamendu batzordearen azaroaren 18ko bilkuran aurkeztu ziren lanen kopurua 1 700 000 eurokoa zen eta aldatze erabakian, berriz, 1 935 000 eurotaraino heltzen da. Kopuru berri horren nondik norakoa ezagutu nahiko luke.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio Herriak ezagutzen duela orain 2017 saneamendu programaren lehen eta bigarren faseetarako deialdien emaitza. 300 000 € horiek Herriak mailegurik utzi nahi ez eta Euskal Elkargoari oparirik egin ere nahi ez izateari loturik dira. Horrez gain, programa horietan aritu diren obralariak ohartu dira Herriak eskatu zuenak beste zenbait lan zekarrela berekin. Halatan, bada, azkenean bi miloitik gora zihoazen kopurutara heldu zen Herria. Delbarreko lanak kendu behar izan ditu, beraz, baina bi miloietan utzi du, halere, mailegurik egin gabe ordain ditzakeelako. Gainerakoa gaur erabaki dugunean ezarri dugu, gehi 2017-2018 programan egiteko asmo dugunean.

Bacardatz jaunak galdetu du ea 1 935 000 euroko lanen xehetasuna ikusi ahalko lukeen.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baietz erran dio eta gaineratu du xehetasun guztiak Merkatu Publikoen Batzordeak abenduaren 7an egiteko duen bigarren bilkuraren

biharamunean izanen direla prest. Jakitera emanen dituzte hiru programen osotasunaren xehetasun guztiak.

Bacardatz jauank galdetu du noiz konponduko den Harriondoko ur zikinen bidea. Bide hori hainbatetan berregin dute.

Magis jaunak erantzun dio iaz egin gibeleratze lanei loturik dela. Kudeatzaile batek bideetan zerbait egiten duen bakoitzean, galtzada guztia konpon dezala edo galtzada erdia konpon dezala eskatzen zaio. Beilatokiaren aitzinean, URA sindikatuak galtzada erdiaren konponketa ordainduko du Harriondolari loturik; ezin genion konponketa osoa eskatu, Herria ere aritu baitzen hor, orain dela urtebete, gibeleratze hoditeria egiteko. URA sindikatuarekin negoziatu dugu eta konponketaren zati bat ordainduko du berak eta Herriak beste zatia, saneamenduaren kontura. Horregatik sartu dugu kopuru txiki bat aurrekontuan, konponketa horretarako.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

14 – 2018rako tarifak.

Bardin jaunak galdetu du ea inork duen hautetsi orori igorri zaizkion 2018ko tarifen gaineko galderarik.

Aiçaguerre andreak urtero egin ohi duen apezetxeari buruzko gogoeta bera egin du. Oraintxe, gehienbat T2 bizitegiak xerkatzen zituztenei buruz erran denaren kontra doa 313 euroko alokairua ezartzea 501 m² neurtzen duen egoitza baterako. Herriak alokatzaile orori proposatuko balizkio 500 m² 313 eurotan, guztiek hartuko lituzkete; umore ateralditxo besterik ez da. Herriak gogoan erabil lezake, agian, etxe handi hori apartamendutan banatzeko aukera. Badaki kolektibitateak larrialdietarako apartamendua behar duela Kanbon; apezetxea leku ederra litzateke horretarako.

Noblia andreak uste du apezetxean bilkura aretoak daudela.

Magis jaunak Aiçaguerre andreari galdetu dio ea apezak ez dion apezetxea bisitatzeko gonbitea egin.

Aiçaguerre andreak ezetz erantzun dio.

Magis jaunak apezetxea bisita dezala eskatu dio; konturatuko da, orduan, erraten duena ezin dela egin.

Noblia andreak tarifa guztiak batera bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

15 – Zero fito materiala erostea: Aturri-Garonako Ur Agentziari dirulaguntza eskatzea.

Goytino jaunak gogora ekarri du Herriak bere egin duela zero fito urraspidea. Errobiren Isurialdearen Sindikatuak laguntzen du Herria urraspide horretan eta herri kontseilariei aurkeztu die urraspide hori.

Jendeen osasuna eta ingurumena zaintzeko asmoz, Herriak espazio publikoetan belar hilkaririk ez erabiltzea erabaki du. Hori eginez, Herriak legeak ezarri betebeharrak ematen dio arrapostu, legeak produktu fitosanitarioak erabiltzea debekatzen baitu, salbu leku jakin batzuetan, hala nola diren hilerriak, kirolguneak eta arriskutsu diren lekuak.

Lau urte badira Herriaren eta Arnagako berdeguneen zerbitzuak bete-betean ari direla proiektu horri loturik eta abantzu handiak egin dituzte eta lan egiteko manierak aldatu.

Orain, sindikatuak Aturri-Garona Ur Agentziari gure materiala hobetzeko dirulaguntza eska diezaiozun proposatu digu. Material arina behar omen da, batez ere ufagailu elektrikoak, sasaiak garbitzeko makina elektrikoak eta bestelako materialak, oso isilak izateko abantaila dutenak. Badira belar hilkari termikoak ere, produktu fitosanitarioak ez erabiltzeko, eta, azkenik eta bereziki, karrika garbigailua behar omen dugu erosi. Berdegunen zerbitzukoek diote karrika garbigailu hori oso baliagarri dela, ongi errazten baitu guztia, espaloitxoak eta guzti eta horrek belar txarren oinarri diren materien pilatzeak eragozten duela.

Material guztiaren kostua 189 172.90 € ZB da eta Aturri-Garona ur Agentziari laguntza eskatuko zaio.

Etchelecu jaunak galdetu du ea dirulaguntza lortzen ez badu, Herriak egingen ote duen inbestimendua.

Noblia andreak dio auzapez andreak erabakiko duela.

Goytino jaunak erran du egun dugun karrika garbigailua higituxe dela eta denbora apur bat badela garbigailu berria erostearen gaia airean dena.

Goytino jaunak erran du Zerbitzu Teknikoen zuzendariarekin aztertzen ari direla eta dirulaguntzak ez duela erosketa zalantzan jarriko.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

16 – Euskal Hirigune Elkargoa: Eraikuntza lanetako eta herri lanetako hondakin bizigabeen eskumena Euskal Elkargoari uztea.

Irastorza jaunak gogora ekarri du Euskal Hirigune Elkargoaren Kontseiluak, 2017ko irailaren 23ko delibaremen bidez, eskumen gehigarri bat hartzearen alde agertu zen, eraikuntza lanetako eta herri lanetako hondakin bizigabeen biltegi eta balioa emate guneak sortu eta kudeatzeko.

Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean, BIL TA GARBI sindikatuak darama etxe hondakinen eta antzekoen tratamendurako zerbitzu publikoa.

Eskumen horrek, halere, ez du hartzen, oraingoz, ekonomia jardueretatik datozen bestelako hondakinak, bereziki eraikuntza lanetatik eta herri lanetatik sortzen diren bizigabe deitu hondakinak.

Ingurumena babestu eta balioa emateko eta lurraldean dugun bizi kalitatea hobetzeko, BILTA GARBI sindikatuak hondakin horietarako lurperatze zentro bat sortu nahi du.

Halatan, bada, sindikatuak horretarako eskumen arautu baten adierazpena nahiko luke eta horren egiteko, lehen-lehenik, sindikatuko kide diren kolektibitateek, izan ere, Euskal Hirigune Elkargoak, eskumen hori ukan behar luke, gero sindikatuaren esku uzteko.

Aiçaguerre andreak erran du THPan badela Ny zona bat, 3ha24 izatetik 1ha71 izatera pasako dena. Zona hori hetsirik da eta Kanbo Beherean da kokatua. Ez ote genukeen zonaketa berbera atxiki beharko, zeren Euskal Elkargoak eskumena hartuko du, baina hondakin horiek guztiak emateko lekuak beharko ditu. Guztiok beharko dugu parte hartu eta behingoz kontuan har euskal lurralde osoan dugun arazo larri hori; elkarteek seiehundik gora zikintegi zerrendatu dituzte han-hemen hedaturik, Estatuak baditu eskuartean hainbat eta hainbat dossier, suprefetari ere eman zaizkio dosierrak. Jokoan duguna oso-oso handia dela iruditzen zaio, dossier oso handia dela hori. Herriak ezar zezakeen, THPan, orain dauden zikintegi guztiak zerrendatu behar direla, baina Euskal Elkargoak THPak edo THPen berrikuspenak aztertzerakoan eginen duela uste du, halere.

Irastorza jaunak erantzun dio Euskal Elkargoak eginen duela, horretarako eskumena hartu baitu. Gailurretako errepideko hondakindegia dela eta, hetsirik dela erran du.

Aiçaguerre andreak erran du inor ez zihoalako hetsi dutela.

Irastorza jaunak erantzun dio arriskutsu bilakatzen ari zelako hetsi dutela.

Aiçaguerre andreak zehaztu du enpresek ez zutela zintzoki jokutzen eta, halatan, hondakindegia ez zela errentagarri. Behar bezala erabili izan balitz, jarrai zitekeen.

Irastorza jaunak erantzun dio hondakindegia horrek bi langai zituela, etxe hondakinak eta, gero, eraikuntza lanen hondakindegia bilakatu da.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

17 – Turismo Bulegorako ordezkaria izendatzea.

Irastorza jaunak gogora ekarri du Turismo Bulegoaren estatutuen arabera auzapeza ohorezko lehendakari dela. Bernadette Jougleux andrea zen Herriaren ordezkaria. Auzapez izanik, berezko kide bihurtu da orain, eta beste ordezkari bat izendatu behar dugu, Jougleux andreak zuen lekua betetzeko.

Gehiengoa duen taldeak Lespade andrea proposatu du.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

18 – Mozioak.

Noblia andreak honako mozio hauek bozka ditzan proposatu dio Herri Biltzarrari:

1 – France 3 katearen egunerokoaren tokiko edizioa desagertzearen aurkako mozioa

Herri Biltzarrak gaitzesten du France 3 katearen egunerokotik «Berno» eta «Euskal Herri» edizioak kentzea.

Zuzendaritza nagusiak France 3 katearen tokiko hainbat edizio ez direla gehiago egingen erran duelarik, herri hautetsiak edizio horiek mantentzearen alde agertzen dira, tokiko lurraldeak ikusgarri egiten baitituzte eta hurbileko informazioak ematen.

Halatan, bada, Herri Biltzarrak:

- SALATU DU France 3 katearen tokiko edizioak kentzea, birzentralizazioaren adierazpena baita,
- ESKATU DU lurraldeen aberatsa erakusten duen tokiko informazioa mantentzean,
- ADIERAZTEN DU beldur dela erabaki horiek ez ote dituzten lanpostu galtzeak ekarriko.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

2 – Oloroeko Ospitalearen amategi zerbitzua hestearen aurkako mozioa

Herri Biltzarrak salatzen du Oloro-Donamariako ospitalearen amategi zerbitzua hesteko proiektua, baserrialdeetako zerbitzuak oraindik ere gehiago hondatzen baititu.

Akitania Berriko Eskualdeko Osasun Agentziaren (ARS) artamenduak antolatzeke batzorde bereziak, uztailaren 7an, aurkako iritzia eman zion Oloro-Donamariako ospitalearen obstetrika zerbitzurako baimena berritzeari, eta aurreikusia da heldu den abenduaren 20an ospitalearen amategi zerbitzuak hetsiko duela.

Alta, badira heste horretarako arrazoirik ez dela dioten elementuak. Hasteko, zona zenbaiten kokapen geografikoak zail, nardagarri, bai eta arriskutsu ere egiten du hurbilen diren beste amategietara joatea. Horrez gain, lurraldean den sortze tasa bada ospitale horren amategia biziarazteko adina. Azkenik, tokiko eragileek medikuak kontratatzeke urraspideak egiten hasi dira eta atzeman dituzte ARS agentziak eskatzen dituen adina ginekologo eta pediatra.

Gaur egun, hautetsiek Oloro-Donamariako amategia atxikitzeke hartu engaiamendua hartuagatik ere, artamendu sistemaren funtsezko elementua baita eta Goi-Bernoarentzat behar-beharrezko hurbileko zerbitzu publikoa, ez diete oraindik informazio edo erabakirik jakinarazi.

Horregatik, Herri Biltzarrak:

- SALATU DU artamendu sistemari egin dakioken kaltea, bizitza arreak hurbileko zerbitzu medikuetatik urrunduz,

- ADIERAZI DU beldurrez ikusten duela zerbitzu hori hesteak ekar dezakeena, herritarrentzako hurbileko zerbitzu publikoak arriskuan jarriko baititu gehixeago.
Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

19 – Langileak.

19a – Hirurteko Formakuntza Plan Partekatua, 2017-2019

Zerbitzuen zuzendari nagusiak gogora ekarri du Lurraldeko Funtzio Publikoko langileen formakuntzari buruzko legeak, 1984ko uztailaren 12koak behartzen dituela tokiko kolektibitateak beren langileentzako urteko edo urte zenbaitetarako formakuntza plana ezartzera. Betebehar hori Lurraldeko Funtzio Publikoari buruzko 2007ko otsailaren 19ko 2007-209 legeak berretsi du.

Halatan, bada, Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak eta Lurraldeko Funtzio Publikoaren Nazio mailako Zentroak (CNFPT) Pirinio Atlantikoetako Departamenduko euskal lurralderako formakuntza plan partekatua prestatzeko laguntza proiektu bat egin dute.

Laguntza aldi hori bururatu eta lurraldeko kolektibitateek tresna horri jarraipena ematea erabaki dute.

Proiektuak lurraldean formakuntzak antolatzeko aukera emanen du, bereziki CNFPT zentroari.

Biltzarkideei eman zaizkien dokumentuen artean, horretara lotzen diren kolektibitate eta erakunde publikoen zerrenda dute; bada elementu interesgarri bat, alegia, euskal lurraldeko erreferenteen zerrenda, non Kanboko Herriaren ordezkari bat baita. Garrantzitsua da bilkura horietan izatean. Proposatzen denaren berri ukaiteko aukera ematen du, bai eta formakuntza ikastaldietarako proposamenak egiteko ere, zeren maiz gertatzen baitzaigu CNFPT zentroak erraten digula ikastaldi baterako eskari gehiegi dela edo gutxiegi; bigarren kasuan, ez da ikastaldia antolatzen. Iraganean baino hurbilagoetik egiten diren formakuntzak dira.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

19b – 19b – 19d – Lanpostuen sortzea.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak argitu du gai honetan hiru lanpostu daudela sortzeko.

- a) Lanaldi osoko lanpostu iraunkor bat lekualdaketa bidez sortzea, 2017ko abenduaren lehenetik hasiz: lehen mailako idazlari nagusi lanpostua, lanaldiaren % 50ean harreraren eta egoera zibilarren zerbitzuan aritzeko eta gainerako % 50ean, giza baliabideen zerbitzuan.

- b) Lanaldi murrizteko (28/35) lanpostu iraunkor bat sortzea, 2018ko urtarrilaren lehenean hasiz: ondarearen laguntzailea, Azantzako erakusketen arduradun eta Arnagako gida lanak egiteko. Langile hori 2014ko azaroaren 11tik 2016ko azaroaren 10 bitarte izan zen enplegua laguntzeko kontratu bidez (C.A.E.) kontratatua, eta gero iraupen mugatuko kontratu bidez, 2016ko azaroaren 11tik 2017ko abenduaren 31 bitarte.
- c) ARNAGAKo lorategian lorezainburu lanpostua ordezkatzeko langilea kontratatu nahi delarik, 2018an huts geratuko baita, orain ari denak erretreta hartu eta, 2018ko otsailaren lehenean hiru lanpostu sortzea aurreikusi behar dugu:
- Lehen mailako teknikari nagusia (B)
 - Teknikaria (B)
 - Langile arduradun nagusia (C)

Lanpostua C mailako langile bat (2. gradutik gora) edo B mailakoa kontratatzeko ireki da.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du, lekualdaketa bidez betetzeko lanpostuaren sortzeari dagokionean ea kontratatzeko ireki duten.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio lanpostua sortu dutela, lanpostua hustu dela eta lanpostua bitan banatuko dela. Langilea funtzio publikoan da jadanik eta ez da hautagaitza deialdirik egin.

Hiriart-Urruty andreak dio lanpostua ez dela ireki.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio Herri Biltzarrak sortzen duela gaur lanpostua.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea lanpostua kontratatzeko ireki ote duten.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio ez dela zertan hautagaitza deialdirik egin.

Hiriart-Urruty andreak dio langile horrek harrera eta egoera zibileko langile lanak egingen dituela eta ea euskaraz dakien.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio langileak ez dakiela euskaraz.

Hiriart-Urruty andreak gogora ekarri du Herria engaiatu zela kanbotar eta Kanbotik kanpoko euskaldunei euskaraz dakiten langileak eskaintzera, batez ere horrelako lanpostuetan. Galdetu du ea pertsona hori euskara ikastera engaiatu den.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio ezen duen borondate ona ikusirik, iruditzen zaiola horrek ez duela arazorik sortuko. Bestalde, auzapez andreak duela pertsona hori kontratatzen eta auzapezak nahi zuela lanpostu horretarako pertsona hori kontratatu.

Hiriart-Urruty andreak dio horrek ez duela deus erran nahi. Ez da auzapez andreak kontratatzen duena.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak dio bera ez dela beti oso zuzen mintzo, baina, zoritxarrez, hitz horiek erranahi jakin bat dute, alegia, Herri Biltzarrak lanpostua sortzen duela, baina erabakia auzapezarena dela bakarrik. Gaur zuek Maryline Biasino –berataz ari baikara- kontratatzea erabakiko bazenute, deliberamendu hori baliogabe litzateke, erabakia auzapezari baitagokio. Uste du Bru jaunak hainbatetan aipatu duela hori, auzapez zenean. Halaxe da beti, hau da, auzapezak ditu langileak, zeinahi direlarik ere, kontratatzen.

Bardin jaunak gaineratu du pertsona horrek lan egin zuela jadanik denbora tarte batean, Herriko Etxearentzat, eta guztiz ongi aritu zen orduan. Normal iruditzen zaio aurkez dadin eta lanpostua eskura dezan.

Hiriart-Urruty andreak argitu nahi du berak ez duela pertsona horretaz deus erraten; galdera lanpostuari buruz egin du.

Larunbat goizetan jende anitz etorri ohi da harlekura, pasaporte egiteko, nortasun agiriatarako, etab. Lanpostu horrekin, bi pertsona izanen ahal dira hor larunbat goizetan.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio egoera zibilaren zerbitzua indartuko dutela, baina larunbat goizetan pertsona bakarra izanen dela hor. Egoera zibilaren zerbitzuan gertatu da ezen lehen pasaporte gutxi batzuk egiten ziren lekuan, orain, berriz, hainbat eta hainbat pasaporte egiten direla. Bestalde, horrez gain, azken hilabeteaz geroztik badira nortasun agiriak ere, eta azaroaz geroztik, PACS itunak ere bai. Nortasun agiri eta pasaporteeekin gainezka dabil zerbitzua, baina, momentuz, ez dute larunbat goizetan bigarren langile bat emanen. Langileentzat beharpen bat baita hori.

Hiriart-Urruty andreak dio gutxitan etorri dela larunbat goizetan herriko etxera eta guztietan oso kontent izan dela eman zaion zerbitzuarekin, baina langilearengatik dio haboro, zeozer gainditurik eta ezin helduz bezala ikusten baitu; ez da lan baldintza hoberenetan aritzen. Pasaporteez arduratu behar du, sartzen diren jendeetaz, galdera orori erantzun...

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio proposamen horiek zerbitzuaren buruarekin ikusten dituztela, zerbitzu horretako langileekin etengabe aritzen baita eztabaidan. Larunbat goizetan beste langile bat izan beharra aipatuko denean, Herriak aztertuko du seriooki. Baina, momentuz, langileek ez dute larunbat goizeko buruzko eskaririk egin. Eskaria bigarren lanpostu bat izatearena zen.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea nor den zerbitziburua.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak Patrick Peña jauna dela erantzun dio.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du zein kategorian ukanen duen langile horrek.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio oharrean bertan idatzia dela. Lehen mailako idazlari nagusi izanen dela.

Hiriart-Urruty andreak berriz ere galdetu du zein kategorian ukanen duen langile horrek.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio B kategoriakoa izanen dela. Aïçaguerre andrea burua higitzen ikusi eta erran dio langile horri emanen zaizkion egitekoak egoera zibilekoak izanen direla; alor horrek zehaztaper handia eskatzen du lanean, akats ñiminoenak

prokuradoreak esku hartzea ekar baitezake, ongi bete ez den dokumenturik bada, eta gero, bada giza baliabideen zerbitzuan egin beharko duen lanaldi erdia ere. Céline, zerbitzu horretan orain dela gutxi hasi zelarik, ez da giza baliabideen zuzendari lan guztiak betetzera heltzen. Lanaldi erdia gutxien-gutxienekoa zen, beraz. Lansarien kopurua mugatu behar delako sortu ditugu bi zerbitzuetan lanaldi erdika aritzeko lanpostua.

Hiriart-Urruty andreak, kontuan hartuz zerbitzuen zuzendari nagusiak egoera zibilaren zerbitzuko lan zehatzaz erran duena, galdetu du ea gaur egun zerbitzu horretan diren guztiak B kategorian diren.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak ezetz erantzun dio.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea horiek ere ongi egiten ote duten lana.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baietz erantzun dio; urte anitzeko esperientzia dute jadanik. Bi langile gehiago jar daitezke, larunbat goizetan hiru langile jar daitezke ere, nahi den guztia, zernahi egin daiteke. Lansari kopurua mugatu behar da, halere, herritarrei zerbitzua eskaini behar zaie eta langileak zaindu behar dira ere; hala egiten saiatzen da bera zerbitzuen buruekin batera. Ez du Hiriart-Urruty andrea konbentzitzeko asmorik, baina erran nahi zuen halere.

Hiriart-Urruty andreak galderak egiten ditu eta erantzunak nahi lituzke, besterik gabe.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak «bai, bai» erantzun dio.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio: «bai, bai zeri?»

Zerbitzuen zuzendari nagusiak dio ezen bera mintzatzen ari den bitartean burua higitzen ari den jendea ikusten badu, horrek adierazten duela sinesgarritasun maila ez dela oso gora, baina hala erran nahi zuen.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio paranoia zertxobait duela.

C puntuari dagokionean, hau da, lorezainburu lanpostuaren ordezkatzeko langile bat kontratatzeari dagokionean, Hiriart-Urruty andreak galdetu dio ea barneko norbait hartuko ote duten.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio hautagai aurkeztu nahi duen langile oro aurkez daitekeela, hala barneko nola kanpoko. Legeak hala dio; ez da debekurik.

Hiriart-Urruty andreak eskertzen dio arrapostua eman izana.

Aiçaguerre andreak oharño bat egin du; pentsatzen du Goytino jauna bat etorriko dela berak dioenarekin. Zero fito programari buruzko bilkuretan, beti iruditu zaio berdeguneetako zerbitzuek langile gehiago eskatzen zutela. Azken bilkuran, Jogleux andreak erran zuen – oraino ez zen auzapez- zerbitzuburu nahiak betetzen saiatuko zela, baina guztiak ez direla berdin tratatuak dakus. Beti erran izan da zero fito programak langile gehiago eskatzen zuela, lan handiagoa baitzekarren.

Goytino jaunak erantzun dio gaiari ez diotela izkin egin. Zero fito programak langileen lan egiteko manera aldatu du erruz, emendatu ere egin du eta eskaria kontuan hartua da.

Noblia andreak bozkatzera deitu du.

Aho batez onetsia.

20 – Auzapezaren erabakien berri ematea.

Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluek eta 2017ko uztailaren 22ko Herri Biltzarraren deliberazio batek hala agindurik, auzapez andreak jakitera eman ditu 2017ko abuztuaren 27tik azaroaren 11 bitarte hilerrian egin diren emakideen emate eta berreskuratzei buruzko erabakiak:

- 30 urterako emakiden erostea (lurrean): 2
- 15 urterako emakiden berritza: 1
- 30 urterako emakiden berritza (hilobiak): 1
- Urririkako lurren berreskuratzea: 6

Hilobi emakidek ekarri dirusartzeak: 1 360 €.

21 – Hainbat gai.

- Noblia andreak Amicale Bouliste elkartearen barkamen eskeko idazki bat irakurri du, oposizio taldeak Kanboko bestetan agertu afixa batez eman informazioa dela eta: «Agertzen duen marrazkiari dagokionean, ez da emazteak apalarazteko sexismoa, noski, zeren gure klubean emazteak gizonen pare baitira. Gizonezkoen eta emazteen lehiaketak antolatzen ditugu, berdin-berdin. Klubean ia laurogei kide gara eta horietarik hogeit bat emazte, kontent direnak, ene ustez, petankan arituz beraiek baino maila goragoa dutenekin, edo apalogokoekin ere. Ez dugu bereizketarik egiten eta arratsaldetako partida oro adiskidantza handiko giroan egiten ditugu. Petanka klubaren barkamen eskea errepikatu nahi nieke, berriz ere, afixak mindu dituen guztiei».
- Noblia andreak biltzarkideei jakinarazi die bi dohaintza ukan dituela Arnagak. Michel Devaux jaunak bere amarena zen basagerezizko «més» bat eman dio Arangari. Bigarren dohaintza Hansi-ren litografia bat da, soldadu baten ilobiaren aitzinean belauniko den alsaziar neska bat ageri duena. Dohaintza hori Antoine Collot de Bourges senar-emazteek egin dute. Auzapez andreak eskerrak emanez idatzi die bi emaileei.
- Iragan urriaren 27an Guérard hil zela eta auzapez andreak dolumin gutun bat egin zuen eta horren esker onaren adierazpena jaso du Herriak.
- Noblia andreak biltzarrari jakitera eman dio Arnaga etxearen *Marque Qualité Tourisme 2017* delakoaren ospakizun bat egingen dela abenduaren 11n, asteleharekin, 14:30ean, Arnaga etxean, Max Brisson senatariarekin eta Jacques Pedehontaa Departamendu kontseilariarekin.

- Aïçaguerre andreak Herriko Etxearen webguneari buruzko informazio bat eman du. Batzordeen taulan, oraindik lehengo batzordekideak daude zerrendatuak; adibide baterako, Pantxo Michelena jauna birazkatzeen eta baserri gaien batzordean ageri da. Oraindik auzapez jauna ageri da. Hori guztia egunera eman beharko litzateke, batez ere orain, zeren Jogleux andrea ezindurik delarik, jendeek deitu eta, beharbada, auzapezordeekin edota batzordekideekin zuzenean mintzatu nahiko baitute.

Noblia andreak erantzun dio Le Bars jaunak jarriko duela orrialde hori egunera.

- Hiriart-Urruty andreak seinalatu du THParen berrikuspena dela eta, atzeman duela Basseboureko 5 ha aipatzen dituen orrialdea. Kontuan hartuz 20 hektaretatik % 25 dela hori, eraikigarri diren lurretan, biltzarraren hurrengo bilkurarako nahiko luke horren gaineko erantzuna. 308. orrialdean da.

Noblia andreak amaitutzat eman du Herri Biltzarra 23 oren eta 35 minututan.